

Barrena

Zientziaren olatua

Europako Geoparkeen Astearren barruan, askotariko ekintzak izango dira Deban, Mutrikun eta Zumaian maiatzaren 22tik 30era, zientzia eta surfa ardatz hartuta / 5



Iñaki Rementeriak Geoparkeari egindako dohaintzaren aurkezpena. Geoparkeko zuzendari zientifiko Asier Hilario, Alazne Txurruka Debako alkatea, Rementeria bera, Unescoren ebaluatzaile Emmaline Rosado-Gonzalez eta Alexandru Andrasanu eta Leire Barriuso Geoparkeko kudeatzailea. IZARO AULEIARTIARTE

LITERATURA

"Aitzindaria izan zen Lourdes Iriondo bere garairako, eta artista handia" / 3

Lorea Jainaga
Ikertzailea eta irakaslea



LANDAKO ESKOLA

JAIAK

Dena prest dute Deban igandeko jairako, Debarren Egunerako / 24



Erraldoiak dantzan, iazko Debarren Egunean. NEREA BEDIOLAUNETA

MUSIKA

Elgoibarko musikariek beren eguna ospatuko dute bihar, larunbata

Eguerditik aurrera, kontzertuak izango dira Aita Agirre plazan, eta arratsalde-gauean, Maalako parkean / 12

LITERATURA

Minaberri itzulpen-beka irabazi du Arkaitz Uranga mendaroarrak

Alemanetik euskarara ekarriko du Jürg Schubiger idazlearen 'Als die Welt noch jung war' liburua / 15



Arkaitz Uranga Urbietan itzultzailea.
LAGATAKOA

FUTBOLA

Zaleen beroa jasoko du bihar Sorako Erregional Mailako taldeak

Gorengo Mailara igotzeagatik omenduko dituzte, ligako azken jardunaldian / 22

ESKUBALOIA

Historia egin du Lauko Errotabarririk, Urrezko Ohorezko Mailara igota / 16



Ermuko Lauko Errotabarririkoen poza. XOEL GIL

Kultur eskaintza oparoa Eibarko Euskal Jaian

Maiatzaren 21ean, ostegunarekin, hasiko dituzte Euskal Jaiko ekintzak, baina maiatzaren 30a, larunbata, izango da egun handia. Egun horri ukitu berezia emateko, baseritar jantzita irteteko eskatu dute Eibarko Klub Deportiboko Kultura batzordetik



Untzaga plaza bete dantzari, iazko Euskal Jaian. 'DANTZAN.EUS'

Ainara Argoitia DEBABARRENA
Maiatzaren 21ean hasiko da Eibarko Euskal Jaia, eta bi aste-buru hartuko ditu. Urtero bezala, kultur eskaintza zabala antolatatu du Eibarko Klub Deportiboko Kultura batzordeak, herriko bertako eta kanpoko eragile askoren laguntzarekin. Lourdes Iriondoren inguruko hitzaldi batek zabalduko du egitaraua, datorren egunean. 60ko eta 70eko hamarkadetan euskal kantagintzaren izar nagusietako bat izan zen Iriondo, eta handia izan zen hark euskal kulturaren berrikuntzari egindako ekarpena, nahiz eta lausotu samar iritsi den gaur egunera. Eta, hain justu ere, haren obra bildu eta eskura jartzeko aritu diren bi lagunetako batek hasiko du Euskal Jaia, Alex Gurrutxaga (Zarautz, 1998) idazle eta irakasleak -Lorea Jainaga eibartarra izan du lagun-.

Hitza eta kantua mimoz landu zituen Iriondok, eta mimo berearekin osatu dute Euskal Jaiko egitaraua antolatzaileek. Eskaintza bete horretan deneratiko ekintzak izango dira, zortzi egunetan banatuta, hala nola bakarrizketak, film-proiektzioak, hitzaldiak, dantzaldiak, erromeriak, kontzertuak eta askotariko kale-animazioa. Antolakuntzari lotutako berrikun-

tzak ere badira aurtengo egitarauan, eta bereziki bat nabarmendu du Klub Deportiboko Julen Bartolomek: "Urteroko kantu-afariari buelta bat eman nahi izan diogu, eta aurtengo afaritarako barik bazkaltzeko elkartzeko gara. Zapatuan egingo dugu kantu-bazkaria, eta, horrekin batera, domekan egin izan ditugun ekintzak ere zapatuta pasatu ditugu. Gure indar eta ahalak bigarren zapatu hori borobiltzen jarriko ditugu beraz, eta, hartara, atsedean hartzeko izango dugu igandea denok ere. Hori bai, egitarauan ere azpimarratu dugu, baina nahi genuke zapatuan baseritar jantzita irtetea jendea kalera". Era berean, eta gastuak gutxitzeko, kantu-bazkaria Errebalen egingo dute, Untzagan karpapean barik. "Karpaparen alokairua garestia da oso, eta nahiago izan dugu dirua kultur eskaintzan inbertitu", zehaztu du, horren harira. Egindako apustuen artean, bi nabarmendu ditu: batetik, Hondarribiko Sorotan Bele taldeak eta Eibarko Udal Musika Bandak maiatzaren 29an elkarrekin Untzagan emango duten kontzertua; eta, bestetik, Euskal Jaiko dantza-jaialdia. Euskal musika zeltako talde aitzindaria izan zen Sorotan Bele, 1991n sortu eta 1998an

desegin zen arte sona handia hartu zuena. Gaur egun, noiz-behinka elkartzen dira orduko taldekideak kontzertuak emateko nahiz kultur ekitaldietan parte hartzeko, eta denbora gutxirekin barruan, birritan entzuteko aukera izango dugu Debabarrenean, ekainaren 12an Elgoibarren joko baitute, hango Udal Musika Bandarekin. Euskal Jaiko dantza-jaialdia, berriz, Joseba Tapiarekin egingo dute aurtengo. Tapiak 36ko gerrako bizipenen soinu-banda osatua du, eta haren erritmora dantzatuko dira Kezka, Haritz, Gure-Kai, Gorosarri eta Txindurri dantza taldeetako lagunak. Joseba Tapiarekin batera Arkaitz Miner, Quigo Puges eta Iraide Ansorena musikariek parte hartuko dute saio horretan.

Horiexek dira antolatzaileek eurek egitarautik nabarmendu dituzten bi ekintza nagusiak, baina hori baino gehiago izango da Euskal Jaia. Hona hemen, puntu-puntu, egitarau osoa.

Frankismoaren urte ilunetan ospatu zuten Eibarren lehen Euskal Jaia, 1965ean

Egitaraua

EGUENA, 21

- **19:00** Hitzaldia eta kantaldia, Klub Deportiboan, Alex Gurrutxagaren eskutik: *Lourdes Iriondo, bide-urratzaile.*

BARIKUA, 22

- **18:45** Idoia Torregaraireren eta Mirari Martiarenaren *Eskailarapekoa* bakarrizketa, Klub Deportiboan.

ZAPATUA, 23

- **19:00** Bakarrizketa, Klub Deportiboan. Lander Varona, Beñat Iturbe eta Jone Bengoa eibartarra.
- **20:00** Ur eta Mixerabliak taldeen kontzertuak, Klub Deportiboan.

DOMEKA, 24

- **18:00** *Oteiza 14 apostolu* filmaren proiektzioa, aurkezpena eta solasaldia, Portalean. Ondoren, 19:30ean, *Apostoluen sokadantza*, Juan Antonio Urbeltzekin.

EGUENA, 28

- **19:00** *Esnatu ala hil* hitzaldia, Klub Deportiboan. Hizlaria: Garikoitz Goikoetxea.

BARIKUA, 29

- **19:00-21:30** Kale-animazioa, herriko kaleetan zehar. Bertso-triki poteoa, Mautitza txarangaren kalejira, Txistulariak eta Eibarko Gaiteroak.
- **22:00** Kontzertua: Sorotan Bele eta Eibarko Udal Musika Banda, Untzagan.

ZAPATUA, 30

- **09:30-14:30** Artisauen eta baseritarren azoka, Toribio Etxeberria kalean. Untzagako arkupeetan standa jarriko du Klub

Deportiboak, eta talo-postua Gure Esku Dagok. Azokan izango diren artisauak: Hartara, Eskune, Eskulan, Isabel Orozco, Zugehina... Baserritarrak: Amazabalegi, Sosola, Loixola, Mandiola Gainekua, Egotza eta Lizagasar.

- **11:30-13:00** VI. Pala Txapelketako finalak, Astelenan.
- **11:00-12:30** Herri-kirolak, Untzagan. Kirolariak: Zihara Zabala, Leire Olea, Jon Loiola eta Jon Lapazaran. Esataria: Ibon Iza.
- **12:00-15:00** Kale-animazioa, herriko kaleetan. Txistu-potea, Tolosako Gaiteroak eta Bentzaharreko Mutiko Alaiak.
- **12:15** Euskal Jaiko kalejira, Errebaletik, dantza ikuskizunean parte hartuko duten eragile guztiekin.
- **12:35** Dantza-jaialdia, Untzagan. Joseba Tapia: *Gerrako gure ibilerak.*
- **15:00** Kantu-bazkaria, Errebalen.
- **18:00** Kalejira, Errebaletik Klub Deportiboan.
- **18:15** Dantzaldia. Eingo taldearekin, Klub Deportiboan.
- **20:00** Larrain Dantza herrikoia, Klub Deportiboan, eta ondoren, Kultu taberna aurrean.
- **20:30** Binilo-pintxada, Klub Deportiboan. Iskra Selectors.
- **23:00** Itziarren Semeak eta Mugi Panderoa taldeen kontzertuak.

Oharra: kantu-bazkarirako txartelak Klub Deportiboan daude salgai. Prezioak: ikasleek eta langabeek 22 euro, klubeko bazkideek 25 euro eta klubeko bazkide ez direnek 28 euro.

"Bi munduren arteko zubi lana egin zuen Lourdes Iriondok"

LOREA JAINAGA ALBIZU

HAUR HEZKUNTZAN ETA LEHEN HEZKUNTZAN GRADUATUA

Lourdes Iriondok (1937-2005) euskal kulturgintzari egindako ekarpena aztertu, eta haren obra bildu du

Ainara Argoitia MENDARO

Gurasoen trikiti eskolan hartu du BARRENA Lorea Jainagak (Eibar, 1999). Mahai gainean ditu Alex Gurrutzagarekin (Zarautz, 1988) batera ondu dituen Lourdes Iriondori buruzko hiru liburuak: Santi Onaindia bekarri esker argitaratutako *Lourdes Iriondo, bide-urratzaile* lana eta haren obrari eskainitako biak: *Lourdes Iriondo. Ipuinak* eta *Lourdes Iriondo. Antzezlanak*. Burutik beheragoak hartuta dago, eta hitz egiteko baino astunago duela dio burua, baina etorririk ez du falta euskal kulturgintzaren izarretako bat izan zenari buruz ari dela. Ikertzailearen zuhurtzia eta artistarekiko miresmena; bietatik agertu du.

Zerk jarri zintuen Lourdes Iriondori begira?

Gradu amaierako lanak. Irakasle nuen orduan Alex Gurrutzaga, eta hark bota zidan amua. Lourdesen garaiko prentsako hainbat artikulu bidali zizkidan, titular potolodunak denak ere, eta harrituta gelditu nintzen. Idatzi haietan argi azaltzen zen zein itzal handia izan zuen Lourdesek 60ko eta 70eko hamarkadetan euskal kulturgintzan, baina haren obra oso lausotua iritsi zaigu gaur egunera, eta iruditu zitzaidan hor bazegoela mamia aztertzeke. Hala, Lourdesen haur eta gazte literatura aztertu nuen gradu amaierako lanerako, eta gero, Alexek berak eta epaimahaikideek animatuta, Santi Onaindia bekara aurkeztu genuen lana, 2023an. Beka hari esker kaleratu genuen *Lourdes Iriondo, bide-urratzaile* li-

burua, bi urteko lanaren ondoren. Ikertzeke orduan, zailtasun handiak izan genituen Lourdesen lan batzuk topatzeko, eta horrek bultzatuta erabaki genuen gero Lourdesen obra bildu eta herritarren eskura jartzea. Bi liburutan eman dugu haren obra argitara.

Bigarren plano batean iritsi zaigu Lourdes Iriondoren berri, Xabier Lete senarraren atzean sarri. Zer zenekien zuk hari buruz haren obra ikertzeari ekin zenionean?

Hala da. Eta gehituko nuke kantagintzatik iritsi zaigula iritsi zaigun apurra. Nik neuk ezer gutxi nekien Lourdesi buruz: Xabier Leteren emaztea izan zela, Ez Dok Amairu kultur mugimenduan ibili zela, eta haren pare bat kantutik: *Gazte gera gazte* eta besteren bat, mitikoenak.

Xabier Lete, aberriaren poeta kantaria saiakeraren egilea da Alex Gurrutzaga. Lagungarri izan zaizu hori Lourdes Iriondoren obrara gerturatzeko?

Bai. Donostiako Koldo Mitxelena Kulturgunean dago Xabier Leteren funtsa, eta han, jakina, Lourdes Iriondoren materiala ere badago, etxe berekoak zirelako. Esango nuke han topatutakotik sortu zitzaizola Alexi Lourdesen obra aztertzeke gogoia eta proposatu zidala niri hari heltzea.

Zerk uste duzu lausotu duela horrenbeste 60ko eta 70eko hamarkadetan hain distiratsua izan zen figura? Zerk eragin du eten hori transmisioan?

Esango nuke arrazoi asko izan direla eta ausartegia litzatekeela bakar bat nabarmentzea. Bat



Jainaga, *Lourdes Iriondo-bide urratzaile* liburuarekin, lantokian. LANDAKO ESKOLA

izan daiteke 1982an azken liburua argitaratu zuenetik hil zen arte ez zela plaza publikoan agertu, dela osasunak horretara behartu zuelako edo garaiko egoera soziopolitiko zailagatik atzera egin zuelako. Horrek, figura ahultzeak, zaildu egiten du transmisioak irautea, baina iruditzen zait gure errealtatearen neurria zein den kontuan hartzea ere badagokigula: Euskal Herria txikia da, irakurle gutxi gara, ikertzaileak ere gutxi, literaturaren historian eta literaturaren arloko ikerketetan emakumeen presentzia urria izan da... Faktore asko dira, beraz, titular batera sinplifikatzeko erantzuna. Iruditzen zait ikertzaileok ezin garela horretan jausi.

Hari buruz esan denetik zerekin ez zaude zu konforme?

Arrazoiak arrazoi, atzera egin zuela esan dugu, baina herri-lanetik ez zen sekula apartatu. Egape ikastolan ibili zen lanean urte askoan, Eliza inguruko mugimenduetan ere bai... Gelditu ez zen egin, baizik eta agertokitik jaitzi. Joera egon da haren bizitzari buruzko komentario batzuk nabarmentzeko, eta klixex beteta aurkeztekoa Lourdes. Euskal Herriaren *nobia* izan zela esan izan da, aurkeztu zaigu emakume xalo gisa... bai-

na ikusten dugunean zer egin zuen garai hartan, konturatzen gara zein emakume indartsua izan zen. Aitzindari bat izan zen bere garairako, eta artista handia. Lourdes bere testuinguruan kokatu behar dugu. Familia diruduneko zen, etxean ez zuten euskararik egiten, frankismo batean sortu zuen obra, euskaraz, eta sufritu zuen zentsura, bere garaiko beste hainbatek bezala, eta irakasle izan zen euskarazko materialik ez zen garai batean. Bide-urratzailea izan zela esaten dugu guk, euskal literatur sistema garaikidea sortu aurretik egin zuelako egin zuen guztia. XX. mendera arte literatura tradizionala izan dugu, naturari oso lotua. 80ko hamarkadan, berriz, literatura modernoago bat agertu zen. Lourdes Iriondok bi mundu horien arteko zubi lana egin zuen: bere obran elementu tradizionalak badaude, baina aldi berean gero etorriko zen estetika moderno aurrera-

"Emakume indartsua izan zen. Aitzindaria bere garairako, eta artista handia"

tzen du. Horregatik esan daiteke katebegia izan zela, eta Mariasun Landa idazleak hainbatetan azpimarratu izan du hori.. **Irakaslea zara zu. Zer balio aitortzen diozu gaur haren lanari?**

3 urteko haurren irakasle naiz, eta izugarritzko lana iruditzen zait. Umeentzat sortzen zuen, baina umeekin eurekin. Umeen intereseko gaiak agertzen dira haren testuetan, eta hor umeak eurak ikusten ditut nik sormen-prozesuan. Lourdesek berak eskuz idatzitako materiala aztertu ahal izan dugu, haren familiakide batek utzita, eta ikaragarria da, esaterako, ikustea nola marrazten zituen antzezlanetako protagonisten arropak eskuz. Lourdesen lan egiteko modu hori, metodologia hori, jasota dator gaur egungo curriculumean.

Iriondoren lana aztertzeke orduan zailtasunak aipatu dituzu lehen. Adibidez?

Liburuteגי publikoen sarean haren lanen bila hasi, eta konturatu ginen batzuk txarto erregistratuta zeudela. *Asto baten malura* liburua, esaterako, *Asto baten maluz* izenarekin agertzen zitzaigun bost bider, eta birritan bakarrik ondo. *Lotara joateko ipuinak* ere topatu ezinda ibili ginen. Hamar ale zahututa zeudela agertzen zen sarean; egoera txarrean zeudelako baztertuak, alegia. Hutsune handiak daude, eta horregatik eman dugu argitara haren obra, bi liburutan, guk izan ditugun zailtasunak izan ez ditzaten ondorengoek. Ustez, argitaratuta dauden lan guztiak bildu ditugu, baina beti ager daiteke berriren bat. *Txorien baratza antzezlan* gehitu dugu guk, inon aipatua ikusi ez duguna, saritu zitzaion lanetako bat izan arren. Tolosako liburutegian topatu ditugu bi ale. Era berean, aurrez argitaratu gabeko antzezlan bat ere eman dugu liburuan: *Fabrika berria*. Familiaren bidez lortu dugu Lourdesen azken izkribu bat izan daitekeena, makinaz idatzia. Altxorra da.

Jabetzen al zara egindako lanaren garrantziaz?

Ez dut uste. Ikertzen aritu izan naizen denboran irakaskuntza lanean eta oposizioetarako prestatzen ere ibili naiz, eta oso gogorra egin zait. Ez dut uste oso kontziente naizenik egindakoaz oraindik. Oso kantsatuta bukatu dugu Alexek eta biok, baina oso harro ere bai egindako lanaz.

Mendaroko salaketa bat tarteko, gizon bat atxilotu dute Galizian, ziberdelituak egotzita

50 urte ditu gizonak, eta 440.000 eurotik gorako iruzurra egitea leporatu diote

Ainara Argoitia MENDARO

50 urteko gizon bat atxilotu dute Coruña (Galizia), hainbat enpresari 440.000 eurotik gorako iruzurra egitea leporatuta. Joan den apirilaren 28an atxilotu zuten, *Nigal-Zigula* izendatu duten polizia-operazioaren baitan, baina Ertzaintzak gaur zortzi eman zuen albiste. Atxilotuari talde kriminaleko kide izatea, iruzur jarraitua egitea, sekretuak jakitera ematea, dokumentu pribatuak faltsutzea, egoera zibila usurpatzea eta kapitalak zuritzea leporatzen dizkiote.

Abiapuntua Debabarrenean du polizia-operazioak; izan ere, 2024ko otsailean Mendaroko enpresa bateko arduradunak jarritako salaketa batek jarri zuen polizia alertan. Arduradun hark salatu zuen 50.000 euro lapurtzen saiatu zirela manipulazio informatiko baten bidez. Hasiera hartan, Gipuzkoako Ikerketa Kriminaleko Lurralde

Zerbitzura atxikitako Ikernet Ziberkriminalitate Taldeak hartu zuen bere gain ikerketa, baina, ondoren, Terrorismoaren eta Krimeen Antolatuaren aurkako Inteligentzia Zentroaren aginduz, Lugoko Guardia Zibilararen Ikerketa Teknologikoko Taldea batu zen ikerketa taldera. Ustezko iruzurgilea apirilaren 28an identifikatu zuten, etxean, eta atxilotzera joan ziren polizia hauek atzeman zizkion miaketan: gailu informatikoak, sakelako telefonoak, SIM txartelak, lapurtutako dokumentazioa, hirugarren pertsonen banku-txartelak, espioitza-mikrokamera...

Ertzaintzaren arabera, atxilotuak hirugarrenei lapurtutako dokumentazioa erabiltzen zuen detektatu ez zezaten; tartean, baita hildako pertsona ere. Lapurtutako identitate horiek aukera ematen zioten banku-kontuak aurrez irekitzeko eta SIM

txartelei alta emateko. Poliziaren arabera, atxilotua "talde kriminal bateko kidea" zen, eta talde horrek zelulak zituen Estatuko hainbat probintzian. Ertzaintzak zehaztu duenez, orain arteko ikerketa-lanak bidea eman du 22 delitu argitzeko eta 160.000 euro inguru berreskuratzeko, hainbat banku-kontu blokeatuta. Atxilotuak *Man in the Middle* izenez ezaguna den teknika erabiltzen zuen; alegia, konfiantza zuen arma nagusizat. "Enpresen arteko benetako komunikazioak atzematen zituen posta elektronikoen bidez, banku-kontuen zenbakiak sumorik sortu gabe aldatzeko, eta, modu horretan, ordainketak talde kriminalak kontrolatutako banku-kontuetara desbideratzea lortzen zuen". Euskal Herriko, Galiziako Aragoiko, Balearretako, Madrilgo, Kataluniako eta Valentziako enpresei iruzur egitea leporatzen diote.

Jasotako Haurrak Elkarte lagun gehiagoren bila ari da

XIX. mendetik XX. mende erdialdera arte Gipuzkoako ongintza sistemak jasotako umeen ondorengoak dira

A.A. DEBABARRENA

Gipuzkoan umezurztegieta eta bestelako erakundeetan jasotako umeen senide talde batek sortu zuen Jasotako Haurrak Elkarte, urtarrilean. Irabazi-asmorik gabeko elkar-tea da, eta helburu batek batzen ditu: "XIX. mendearen amaieran hasi eta XX. mendearen erdialdera arte Gipuzkoako ongintza sistemak hartu zituen milaka haurren estigma sozial eta historikoa deuseztatzea, eta haien jatorri biologikoaren bilaketan laguntzea". Elkarteak sortu zuten salatu dute Gipuzkoako Foru Aldundiak ukatu egiten dizkiela beren senitartekoen inguruko hainbat artxibo eta datu, eta, ondorioz, Arartekoarengana ere jo dute elkartekideek, bitartekari egin dezaten eskatzeko. Aldundiak zehaztua du umezurztegieta eta bestelako erakundeetan utzitako haur

izandakoek bakarrik eska dezaketela gurasoei buruzko informazioa, eta elkarteko asko, senide izanagatik, ez dira haien seme-alabak.

Memoria egin nahi dute

Elkar-teak 50 bat bazkide ditu gaur, baina egoera horretan egon daitekeen jende gehiago egon badagoela uste dute, eta, horregatik, beren posta elektronikoa utzi dute, haiengana iristeko: jasotakohaurrak@gmail.com. Elkartekoek zehaztu dute kasu asko eta askotarikoak izango direla, baina ezinbestekoa ikusten dute indarrak batzea eta antolatzea, erakundeek eman nahi ez dizkieten espedienteak legez eskuratu ahal izateko. Uste dute ezinbestekoa dela hori, eta umeak uzteko egoeran sentitu ziren ama haien nahiz haien seme-alaben memoria historikoa eta soziala osatu nahi dute.

Euskal Herriko gaztetxeen eta gazte asanbladen topaketak Elorriren

"Gaztetxeen kontrako ofentsibaren kontra" indarrak batzeko elkartuko dira, bai eta aisialdiaz gozatzeko ere

A.A. EIBAR

Maiatzaren 29an eta 30ean Elorriren elkartuko dira Euskal Herriko gaztetxeetako eta gazte asanbladetako ordezkariak. Indarrak batu eta komunitatea sendotzeko elkartuko dira, "gaztetxeen eta okupazioaren kontrako ofentsibari" elkarrekin aurre egiteko, baina baita merkatuaren logikatik kanpoko aisialdiaz gozatzeko ere. Izan ere, nabarmendu dute "garai zailak" direla hauek. Besteak beste, bizi-baldintzen pobretzea; indibidualismoaren eta faxismoaren gorakada; modu independentean antolatzen direnen kriminalizazioa; gaztetxeen nahiz gazte asanbladen kontrako erasoak; eta gazteen despolitizazioa aipatu dituzte, eta uste dute

egoera horretan ezin dela besoak antxumaturik gelditu. Gaztetxeetan munduaren ikuskera beste bat dela azpimarratu dute, borrokan eta ilusioan oinarritutakoa, eta horri eusteko irmo sendoa agertu dute. Euskal Herriko gaztetxeen eta gazte asanbladen topaketak antolatzeke, hainbat bilera egin dituzte dagoeneko han eta hemengo ordezkariak. Herri bakoitzeko ordezkari batek parte hartu ohi du batzar handi horietan, eta jasotako ekarpen eta proposamenak herrira ekarri; herrian aztertu eta bilera handira itzuli ohi ditu berriro ordezkari horrek, denen artean findu eta adosteko. Ostiralean, topaketetan parte hartzeko dei egiteko elkartu ziren, Eibarren, Debako,



Elorriren egingo duten topaketa aurkezteko egindako deialdia. ANTOLATZAILEAK

Mendaroko eta Eibarko bertako gazte asanbladetako ordezkariak, nazio mailan ez ezik, eskualdean bertan ere ari direlako taldea sendotzeko ahaleaginean. Iraganaz eta orainaz solastatzeko aukera izan zuten han, eta tribalean aritu ziren gero. Elkar ezagutzeko probestu zuten jolas, eskualdeko gaztetxeen inguruko galderei erantzunez aritu baitziren.

Topaketetako egitaraua

Egitaraua betea da maiatzaren 29-30erako iragarri dutena. Barikuan hasiko dute topaketa, 16:00etan, eta tailerrak, mahai-inguruak, Azoka Gaztetxeroa, afaria, zirku emanaldia, bertso saioa eta Maga Rude eta Meison taldeen kontzertuak izango dituzte lehen egunean. Zapatuko ere eskaintza oparoa lotu dute: gosaria, hausnarketa ko-

lektiboa, disko-pintxadak, kantaldia, manifestazioa eta ondorengo ekitaldia, eta kontzertuak, besteak beste. Skabidean, Mateo Zikuta & El Garto, Maixa Ta Malakias, Dena, Eztanda, Lee Kore eta Aurrez Aurre taldeen kontzertuak lotu dituzte, bai eta Xaukena Xauk, GR3M, DJZatzaz, Basajaun Sound System eta Mangualazo en el Regazo disko-jartzaileen saioak ere.

Zientzia eta surfa izango ditu ardatz aurtengo Europako Geoparkeen Asteak

Maiatzaren 22an hasi eta 30era bitartean, ekimen ugari izango dira Deban, Mutrikun eta Zumaian; ekintzetako batzuk EHUko Kultura Zientifikoko Katedraren elkarlanean antolatu ditu Geoparkeak



Ekimenaren baitan 2024an egindako Biotop landa-irteera. EUSKAL KOSTALDEKO GEOPARKEA

Izaro Aulestiarte DEBA

Euskal Kostaldeko Geoparkeak bederatzi eguneko egitarau zabal prestatu du Europako Geoparkeen Astea ospatzeko. Maiatzaren 22tik 30era egingo da EGNWeek deritzon ekimenaren hamazazpigarren aldia; geurean ez ezik, Europako 28 herrialdetan dauden 113 geoparkeetan ere ospatuko dute. Eta helburu argia du egitasmoak: "Tokian tokiko ondare geologiko eta natural aberatsa ezagutzera ematea eta herritarrengan balio horien kontserbazioaren inguruan kontzientzia

tzia piztea". Hori lortze aldera, zientzia eta surfa ardatz dituen askotariko ekitaldi-sorta aurkeztu dute aurtun. Ekintzak doakoak izango dira, baina kasu batzuetan aurrez eman beharko da izena. Hain zuzen, *geoparkea.eus*-eko *Europako Geoparkeen Astea 2026* atalak dakar informazioa.

Irekiera, Mutrikun

Egitaraua hilaren 22an abiatuko da, arratsaldean. Mutrikun izango da irekiera-ekitaldia, Geoparkeko eta EHUko Kultura Zientifikoko Katedrako ordezkariak

bertan direla. Mutrikuko portuan eta Zumaiaiko Moilaberrin inguruan ikusgai jarriko duten surfari eta zientziari buruzko erakusketa inauguratuko dute, eta ikastetxeekin elkarlanean antolatutako marrazki lehiaketaren sariak banatuko dituzte.

Maiatzaren 23an, larunbatean, Geoparkeko Biraren azken etapa oinez egiteko irteera antolatu dute –Zumaia eta Mutriku artekoa–. Zumaiaitik 10:15ean abiatuta, 17,7 kilometroko ibilbidea osatuko dute, eta Zumaia-ira itsasontziz edota garraio

publikoan itzultzeko aukera izango da. Igandean, berriz, *Flysch haurrekin* tailerra egingo dute, Mutrikuko Nautilus Museoan, 10:00etan. Ondoren, flysch beltzaren itsaslabarrak ezagutzera joango dira partaideak; itsasontzian Saturrarango hondartzarainoko paisaia ezagutzeko ahal izango dute. Asteburuko bi ekintza horietan parte hartzeko, aurrez eman beharko da izena.

Aste barruan, Zumaian

Zumaiaiko Oxford aretoan *Surfa eta zientzia* erakusketa irekiko

dute hilaren 26an, 18:00etan; Euskalmet agentziako Joseba Egaña zientzialaria meteorologia eta surfaz ariko da bertan.

Biharamunerako, aldiz, "hitzordurik garrantzitsuenetako bat" iragarri dute: *Geotalks*. Ozeanografia fisikoko doktorea Tony Butt surflaria Asier Hilario Geoparkeko zuzendari zientifikorekin batera ariko da solasean, surfaren inguruko ikus-entzuzko batez lagunduta. Ekimena 19:00etan hasiko da, Aita Mari aretoan.

Azken geldioneak, Deban

Debak hartuko ditu egitarauaren baitako azken ekitaldiak: batetik, maiatzaren 29an, musika eta hitzaldi bat uztartuko dituen ekitaldia egingo dute hondartzako pasealekuan –Eduardo Ogan- do EHUko fisikaria eta Ibon Oregi surflaria izango dira bertan–; bestetik, hilaren 30ean, Biotop irteera antolatu dute, *Intsektuen safaria: begirada desberdin bat* izenburupean. Aranzadi Zientzia Elkarteko adituek gidatuko dute eta parte hartu nahi dutenek aurrez egin beharko dute erreserba. Errotaberriko atsedenekuan jarri dute hitzordua, 10:00etan.

Bestalde, sormenak ere izango du tarterik Europako Geoparkeen Astea, III. Mikroipuin Lehiaketa antolatu baitute. Sariketa-*ra Geoparkeko olatuak, badoaz eta badoaz* gaiari buruzko kontakizunak aurkeztu ahal izango dira, maiatzaren 22tik 31ra arte.

Iñaki Rementeriak Geoparkeari egindako dohaintza aurkeztu dute

Urte luzez Deban bizi den Iñaki Rementeria Oiarzabalek ehundik gora pieza paleontologiko eman dizkio Euskal Kostaldeko Geoparkeari, ondarea zaindu eta gizarteratzeko helburuarekin. Rementeriak berak hiru hamarkada baino gehiagoz bildutako fosilek eta septariak osatzen dute sorta. Herenegun aurkeztu zuten, Debako Turismo Bulegoan.

Geoparkeko zuzendari zientifikoa Asier Hilariok Rementeriararen "lan metodiko eta nekazina" azpimarratu zituen, eta esker oneko azaldu zen: "Flysch osoan dauden fosildutako bizi-formen bilduma oso interesgarria eta konpletoa da, hasi Mutrikuko eta Debako flysch beltzetik eta

Zumaiaraino". Geoparkeko lurraldeko ondare paleontologikoa ikertzeko eta kontserbatzeko abiatutako programaren baitan kokatzen du Hilariok dohaintza. "Jarduera horren ondorioetako bat da bertako biztanleak Geoparkera hurbiltzen direla ondarea partekatzeke, guztiona izan dadin", gaineratu zuen.

Hauxe dio Rementeriak: "Beti gustatu izan zait fosilen bila ibiltzea, eta etxean *harrobia* nuen gordeta, jada ez neukan lekuri! Hasteko, orain 30 urte inguru, *Crinoide* oso berezia jaso nuen Elorriagan, eta handik aurrera zaletasuna handitu zitzaidan. Dohaintza horren bidez, pieza hauek Deban geratzea nahiko nuke".



Rementeria –ezkerretik hirugarrena–, Debako Udaleko, Geoparkeko eta Unescoko ordezkariekin. I.A.

Debako Udaleko eta Geoparkeko ordezkariak gain, egunotan Geoparke aztertzen aritu diren Unescoren ebaluatzaileak –Emmaline Rosado-Gonzalez mexikarra eta Alexandru Andrasanu errumaniarra– ere izan ziren

dohaintzaren lekuko. Izan ere, Geoparkeak ebaluazio misioa jaso du, Unescoren Munduko Geoparke izendapenari beste lau urtez eusteko baldintzak betetzen dituela ziurtatzeko; udazkenean emango dute azterketaren emaitzaren berri.

NIRE USTEZ

Izendegia



ANGEL UGARTEBURU
IRAKASLE OHIA

Aspaldi entzundako kontaera batekin hasiko naiz: auzoan mutiltxo bat jaio dela eta, joan da Joxepa jaioberrria ikusi eta gurasoak zoriontzera. Sukalde bazterrean izara eta abar jantzitako sehaskara hurbildu, eta horrelakoetan esaten dena bota du, umea ikusi baino lehen: – *Eeene! Aita iguala, klabau!* Zer da kontua eta... umerik ez. Lapiko bat, deskuiduan han lagata.

Umeari izena jartze horrek eman izan du eta ematen du hainbat buruhauste. Bada esaten duenik pertsona bat nolakoa den ikusi eta gero, eztilapiko zein ozpinlapiko, jarri behar direla izenak. Gaitzizenek betetzen dute hutsune hori. Hormako egutegi-takoak zabaldu ahala, Elizak hala gomendatuta, eguneko santu edo santaren izena jartzea jarri zen modan. Hara lana erraztuta. Paskasio, Tiburtzio edo Gertrudis tokatuz gero, "lepoan hartu eta segi aurrera".

XIX. mendearen bukaera aldera Sabino Aranek bere euskal izendegia eman zuenean hasi zen aldaketa. Durangoko idazle euskaltzale handiak, P. Paulo Astarloak, egindako azterketa eta aholkuak jarraituz, emakumeen izenek e hizkiz amaitu behar zuten: Jone, Igone, Ikerne, Ibone, Josebe, Eguzkiñe... "eme" izateak eskatzen duenez, eta gizonezkoenak a hizkiz, arra izateak eskatzen duenez: Koldobika, Jagoba, Joseba,

Ebaista, Gorka, Errikarta... Astarloa, abade izanda, konturatu ei zen umeak bataiatzera eramaten zituztenean emeeek "eeeee" egiten zutela eta arrek "aaaaa" negar edo arrantza.

Bitxikeria jakingarria. Belarri finekoa Astarloa hori. Euskaltzaindiak ere atera zuen bere euskal izendegia eta hormako takoari lekua kendu. Pertsona nagusientzat buruhauste bihurtu zen izen berriak ikasi eta gogoan hartzea. Hala gure auzoko Isidrentzat. Semea ezkondu eta alabari modako Aitziber jarri ziotela: – *Zorionak, Isidra! Bilobatxoa euki dozula. Zer izen ipini dautsozue ba?* – *Dautsozue ez, dautsie! Nik dakit ba?* *Aizie... Aizibe edo holako zeoze. Oraingo modakue.*

Bigarrena ere etorri zen, mutiltxoa. Zorionak berriro: – *Osatu zarie ointxe. Zer izen ipini dautsie ba? Jakin nahi auzoan. – Oingo modakin zabiz? Lehengue, haxe oin be, Haxie.* Oraingoan semea suertatu da bertan eta hark zuzendu du ama: – *Baita zereko haxie! Asier dala ba, ama, Asier!*

Nire arreba batek Markinan entzundakotik beste hau. Bilobatxoa izan berri Basilia eta joko-lagunekin solasean: – *Bilobatxoa izan dozuela, Basi!* – *Bai, ez geuria dalako, baina neskato ederra jaio da. – Izena? – Hara! Esateko be... Oilanda ipini ei deusie. Kristauari ipintzeko horraitio! Gaurko modak. Joko-kideak irri eta barre. Hariari tira ere bai: – *Mutila izan bazan Oilasko, orduan. Hala tokatzen da, Etxera itzuli denean alabaren bronka: – Zu be! Oilanda zelan jarriko geuntsan, ba! Yolanda dala, ama, Yolanda!**

GUTUNAK

Zorionak,
Ermua CD

AITOR ALVAREZ ARRUTI
ERMUA CD-KO PRESIDENTEA
ERMUA

Maiatzaren 11n, harrotasun handiz ospatu dugu Ermua Club Deportivo-ren 75. urteurrena. 75 urte historiaz, grinaz, ahaleginaz eta gure elastiko gorri maitearekiko maitasunez. Zaila da hitz gutxitan laburtzea klub honek hainbeste pertsonarentzat zer esan nahi duen. Ermua CD ez da futbola bakarrik; gure herriaren, gure familien eta belaunaldi askoren historiaren parte da.

Bihotzez eskertu nahi diet hona iristea posible egin duten guztiei: erakundeei, babesleei, presidenteei, zuzendaritza-kideei eta urte hauetan klubaren alde isilean lan egin duten pertsona guztiei. Eskerrik asko entrenatzaileei, prestatzaileei, ordezkariari eta material-arduradunei, zuen konpromisoagatik eta lanagatik. Eskerrik asko gure bazkide eta zaleei, taldearen ondoan beti egoteagatik, une onetan nahiz zailenetan. Eta eskerrik asko, bereziki, 75 urte hauetan elastiko gorri hau harrotasunez, sakrifizioz eta bihotzez defendatu duten jokalarri guztiei.

Entrenamenduak, bidaiak, partidak, garaipenak eta porrotak gure historiaren parte dira. Historia hori pertsona apalek, langileek eta pasiodunek eraiki dute, Ermua CD klub bat baino askoz gehiago bihurtuz. Gure benetako ondarea ez dira

soilik kirol-emaitzak. Pertsonak dira: elastiko hau jantzi dutenak, harmailatik animatu dutenak, barrutik lagundu dutenak eta klubaren izena harrotasunez eraman dutenak.

Gaur iraganari emozioz eta esker onez begiratzen diogu, eta etorkizunari ilusioz. Urteurren hau guztiona da: izan zirena, daudenena eta etorriko direna. Eskerrik asko Ermua CDren sentimendua bizirik mantentzeagatik eta familia honetan sinesteagatik. Zorionak 75. urteurrenagatik, Ermua CD!

Eskerrik asko

MORKAIKO M.E.
ELGOIBAR

Morkaiko Mendizale Elkartearen izenean, aurren ere eskerrak eman nahi dizkizuegu Morkaikoren Egunean parte hartu eta lagundu zeniguteno. Mila esker!

Honen atzean ikusten ez den lan dexente dago. Zuzendaritzakook, boluntarioen laguntzari esker, ateratzen dugu mendizaletasunaren eguna aurrera, 630 ibiltari eroso ibil daitezen gure altxor ditugun mendietatik zehar; bai Mendi Itzulian eta bai Itzulitxoan, anoak kontuan hartuta eta bukaerako bazkarirako aukera edukita.

Aipatzekoa da aurren gazte dexente irten direla Itzulian, eta boluntario moduan ere egon dira, eta horrek, aurrera begira, poztu egiten gaitu. Ondorioz, mendizaletasunak etorkizun oparoa du, dudarik

gabe. Finalista Egunean barruan, 87 haurri egin zitzaien aipamena dominak jasotzeko. Mila esker berriro ere eta zorionak guztiei: denek osatzen baitugu Morkaiko familia handia. Hurrengo urtean 100. urtea beteko da (1927) Elgoibarko lehen mendi itzulia egin zenetik, eta ezustekoak egongo dira.

Rokodromoaren
erabiltzaileentzako
deia

JOSU MERINO
ELGOIBAR

Rokodromoaren gaia dela-eta, martxoaren 23an bildu ginen Udalarekin, eta bertan azaldu genituen kiroldegiko rokodromoaren beharrak. Eskaladako talde bat sortzea gomendatu ziguten, gauzak errazteko. Hori egiteko asmoa dugu, Morkaikoren barruan. Udaletik jaso dugu deia, maiatzaren 19an berriz biltzeko. Honen bidez, deialdia egiten dizuegu, talde honetan izena emateko interesa duzuenoi, hau da, rokodromoaren erabiltzaile eta gurasoei. Maiatzaren 20an izango da bilera, hitzaldi gelan, 19:30etik 21:00etara. Bide batez Udalaren erantzuna jakinaraziko dugu batzarrean. Garrantzitsua da parte hartzea. Eskerrik asko.

Barrena[®]
DEBABARRENEKO
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea
Barrena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Aita Agirre plaza, 3
20870 Elgoibar
barrena@barrena.eus

Lehendakaria
Gaizka Azkarate.
Zuzendari nagusia
Egoitz Unamuno.
Eduki arduraduna
Ainara Argoitia.

Erredakzio batzardea
Ainara Argoitia, Ubane Madera,
Ainhoa Andonegi, Izaro
Aulestiarte.
Kazetariak
Ainara Argoitia, Ainhoa
Andonegi, Alex Turrillas, Ander
Gomez, Asier Orbea, Egoitz
Unamuno, Izaro Aulestiarte,
Nerea Bedialauneta, Ubane
Madera.
Diseinu arduraduna
Oier Larreategi.
Zuzentzailea
Sergio Azkarate.
Kidetzak eta banaketa
Alex Turrillas.
Maketazioa
Zalao Arnaiz, Oier Larreategi.
Publizitatea
Leire Rubio.

HARPIDETZA
Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 16 26
harpidetza@barrena.eus

PUBLIZITATEA
Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 16 26
publi@barrena.eus

DEBAKO EGOITZA
Deba 20820
Ifar Kalea 12, behea
943 19 13 83

ELGOIBARKO EGOITZA
Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 41 12

ERMUKO EGOITZA
Ermua 48260
Erdikokale 2, 1
943 17 93 50

SORALUZKO EGOITZA
Sorluze 20590
Errabal 15, 1
943 75 13 04

Lege Gordailua: LG D 993-2025
ISSN: 3101-2647
Tirada: 10.500 ale
Inprimategia: Zeroa Multimedia

BARRENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK



Debako
Udala



Elgoibarko
Udala



Ermuko
Udala



Mallabiko
Udala



Mendaroko
Udala



Mutrikuko
Udala



Soraluzeko
Udala



NONDIK NORA

"Euskararik gabe, ziurrenik, jende gutxiagok ezagutuko ninduke"

EL HADJI FALLOU MBENGUE
SENEGALEN JAIOTAKO EUSKALDUNA

Senegaldik Euskal Herrira migratu zuen, bizitza hobe baten bila, eta berehala hasi zen euskara ikasten

Nerea Bedialauneta Alkorta DEBA

Bizitza erdia baino gehiago darama El Hadji Fallou Mbengue (Louga, Senegal, 1987) Euskal Herrian. Gaztetan hartu zuen jaioterria uzteko erabakia: 18 urterekin iritsi zen, aitak egin-dako proposamenari baiezkoa emanda. Pasaian bizi izan ondoren, Deban errotu da, eta bertan bizi da, hiru anaiarekin. Gaur egun, marmoldegi batean egiten du lan, eta egunerokoan euskaraz mintzatzen da. Irekia eta gertukoa, urte hauetan askoren estimua irabazi du.

Nola eta zergatik erabaki zenuen Senegal utzi eta Euskal Herrira etortzea? Noiz izan zen hori?

Nire aita hemen bizi zen; urte asko zeramatzan bertan. Ni, berriz, 18 urte bete ondoren iritsi nintzen, 2006an.

Aita hemen izateak zer-nolako pisua izan zuen erabaki hartan?

Aitak animatu ninduen hona etortzera. Garai hartan, ikasten ari nintzen, eta galdetu zidan: "Nahi duzu nirekin Espainiara etorri lan egitera?". Egia esan, erabakia hartzea erraza izan zen. Proposamena egin zidanean ez nuen dudarik izan, nire onerako izango zela banekiela. Ni anaia nagusia naiz, eta horregatik etorri nintzen lehena. Gero, nire ondoren, beste anaia batzuk ere etorri dira; gaur egun, lau gaude hemen.

Bazenekien aurretik Euskal Herriari eta euskaldunei buruz ezer?

Aitak zerbait kontatua zidan. Esaterako, banekien beste hiz-

kuntza bat bazegoela, eta ikasteko zaila zela. Beti esaten zidan: "Euskara oso-oso zaila da". Nik, ordea, beti esaten nion saiatzeko asmoa nuela; eta esperantza harekin hasi nintzen, handik gutxira, pixkanaka-pixkanaka euskara ikasten.

Eta Euskal Herrira iritsi zinenen, zer inpresio izan zenuen? Zerk harritu zintuen gehien?

Senegalekin alderatuta, guztiz bestelakoa da. Beste kontinente bat da, eta kultura eta bizimodua ere oso ezberdinak dira. Hala ere, ondo moldatu naiz. Erligioari dagokionez ere alde handia dago; gu, adibidez, musulmanak gara. Klima ere oso ezberdina iruditu zitzaidan. Lehen urtean, hotzera eta hezetasunera egokitzea asko kostatu zitzaidan; aldaketa handia izan zen, eta, alde horretatik, gogorra egin zitzaidan, han giro bero eta lehorre-ra ohituta bainengoen. Dena den, orain, ohituta nago [Barre]. **Hasieratik Deban bizi izan zara?** Ez, hasieran Pasaian egon ginen. Bost bat urte egin nituen han, eta gero Debara etorri nintzen, 2011n. Lana aurkitu nuen; horregatik etorri nintzen hona bizitzera.

"Lehen urtean, hotzera eta hezetasunera egokitzea asko kostatu zitzaidan"



El Hadji Fallou Mbengue, Debako hondartzan. NEREA BEDIALAUNETA ALKORTA

Debara iritsi zinenen, nolakoa izan zen hasiera? Nola hartu zintuzten?

Egia esan, erraza egin zitzaidan. Herrira egokitzea eta jendearekin harremanetan jartzea erraza izan zen; oso jatorrak dira. Ni irekia naiz, eta horrek asko lagundu dit. 2011n etorri nintzen, denda batean hasi nintzen lanean, eta egunero jendearekin kontaktuan nengoen. Egia esan, ordurako euskaraz ere moldatzen nintzen, eta horrek ere lagundu zuen. Gainera, hona etorri aurretik ere askotan egona nintzen; beraz, herria eta pertsona batzuk ezagunak nituen.

Eta nolatan ezagutzen zenituen herria eta herritarrak aurretik?

San Roke festetan eta halakoetan aitarekin etorrita nengoen. Aitak azoketako salerosle egiten zuen lan, eta harekin batera herririk herri aritu nintzen bizpahiru urtez.

"Senegalen ere oso gustura bizi nintzen, baina hemen ere bai; Deba nire etxea bezalakoa da"

Denbora dezente daramazu Deban. Zer duzu gogokoen herritik?

Itsasoa eta hondartza gertu izatea asko gustatzen zait. Senegalen, barnealdeko hiri batean bizi ginen, eta kostara joateko 40 kilometro inguru egin behar izaten genituen. Nire jaioterrian, gainera, ez dago mendirik; dena nahiko laua da. Hemen, mendiz inguratuta bizitzea eta ingurua hain berde ikustea zoragarria da. Deban, egia esan, horrela bizitzea beste kontu bat da.

Bestalde, hemengo bizimodutik zer nabarmenduko zenuke?

Gauza asko, baina, batez ere, laneko errutina. Hemen aukera gehiago dago, baldintzak hobeak dira, eta, horregatik, jende asko etorri da lan bila. Klean eta tabernetan jendea ikustea ere gustatzen zait; han, berriz, bizimodua, gehienbat, etxe barruan egiten dugu. Eta, jakina, jendea oso jatorra da; ni, behintzat, oso ondo konpontzen naiz.

Dena den, hango zerbait ere igerriko duzu faltan, ezta? Itzultzeko aukera asko izan dituzu?

Bai, noski! Familia, lagunak... beti igartzen dira faltan. Hala ere, ahal dudanean itzultzen naiz; urtero hilabete bat pasatzen

dut han. Urrun dago, baina ez dirudien besteko urrun: Madril-dik lau ordu ingurura dago hegazkinez.

Oso ondo moldatzen zara euskaraz. Nolakoa izan da zure ibilbidea?

Etorri eta gutxira, gaztelania eta euskara ikasten hasi nintzen, gau eskolan, HHEn (EPA). Aurretik, azokan ere entzuten nituen zenbait hitz, eta horiek erabiltzen hasita nengoen. *Merke-merke* eta antzekoak.

Eta noiz sentitu zenuen benetan euskaraz moldatzen zinela?

Lehen urtean oinarrizko gaztelania zertxobait menderatzea lortu nuen, eta bigarren ikasurtean euskaraz ere nahiko ondo moldatzen nintzen, konfiantzarekin. Zaila izan arren, azkar ikasi nuen. Beraz, zera azpimarratu nahi nuke: zaila dela, baina posible dela ikastea. Hori bai, esan beharra daukat 20 urteren ondoren oraindik ez naizela guztiz moldatzen! Baina, tira, oinarrizko elkarrizketak egiteko gai naiz, eta beti ikasten da zerbait.

Zer izan zen zailena?

Ezagutzen ditudan beste hizkuntzekin alderatuta, oso desberdina da. Woloferarekin, nire ama-hizkuntzarekin, esaterako, ez du zerikusirik.

Zure ustez, euskara jakiteak ateak ireki dizkizu?

Bai, jakina. Lana bilatzeko, jendea ezagutzeko... denerako oso lagungarria izan da. Euskararik gabe, ziurrenik, jende gutxiagok ezagutuko ninduke.

Hainbeste urteren ondoren, non sentitzen zara etxean?

Senegalen oso gustura bizi nintzen, baita hemen ere. Deba nire etxea bezalakoa da; anaiak eta neu oso gustura gaude.

Etorrizunera begira, hemen ikusten duzu zeure burua?

Momentuz, bai. Hemen jarraituko dut, nahiz eta Senegalera joan-etorriak egiten jarraitu. Orain, hemen dago nire etxea, eta anaiak ere hemen bizi dira.

Atzera begirata, Euskal Herrira etortzea erabaki zuzena izan dela uste duzu? Zergatik?

Bai, erabat; ez naiz batere damutzen. Lehen aipatu dudan moduan, aitak proposatu zidan etortzea, eta, horri esker, harekin momentu asko partekatu ditut. Egia esan, aita ez ezik, niretzat laguna ere izan da, lagunik onena. Eta hemen elkarrekin eman ditugun urteetan asko ikasi dut harengandik. Oso harro nago aitaz.

Ume zein heldu, mendizaletasunak batuta, Morkaiko Egunean

600 bat herritarrek hartu zuten parte zapatuan Morkaiko Egunean. Elgoibarko Mendi Itzulia, Itzulitxoa eta Finalista Eguna batzen ditu egun horrek. Eguneko argazkiak 'barrena.eus'-en daude

Ainhoa Andonegi

Mendiaz gozatzeko eguna izan zen zapatukoa Elgoibarren. Morkaiko Egunearen bueltan batu ziren ume zein helduak, eta mendirako bidea hartu zuten 600 bat lagunek. Aurreko astean gogotik egin zuen euria, eta bazirudien eguna bera ere ekaitzak zapuztu zezakeela, baina mendirako eguraldi bikaina egin zuen. Eguerdi aldean apur bat desitxuratu zen eguraldia, eta Kalamua inguruan gogor jo zuen haizeak. Hala ere, gogotik gozatu zuten mendizaleek.

Azken urteotan bezala, Elgoibarko Mendi Itzulia, Itzulitxoa eta Finalista Eguna batu zituen Morkaiko Eguna. Kaleak hustu, eta mendiak bete egin ziren: 270 lagunek egin zuten Mendi Itzulia. 06:00etan puntu-puntu abiatu ziren Kalegoen plazatik Karakate aldera, eta 40 kilometroko ibilbidea eginez inguratu zuten Elgoibar, mendiz mendi. Itzulitxoa, aldiz, familian egiteko prestatuta dago, eta aurten ere bi aukera eman dituzte antolatzaileek: ausartenek Kalegoen plazan hasita egin zuten mendi buelta, eta 15 bat kilometroko bidea osatu. Beste batzuek Idotorbera autoz igotzea hobetsi zuten, eta handik ekin zioten bideari. 330 bat lagunek egin zuten Itzulitxoa. Heldu zein nagusiek Aiastiako anoa-postuan bat egin zuten, indarrak berreskuratu eta bidearen azken txanpari heltzeko.

Finalista Eguna

Umeen eta gaztetxoaren artean kirola egiteko eta, bereziki, mendira joateko ohitura sustatzeko helburuarekin antolatzen du Morkaikok Finalista Eguna. Urtean eginiko mendi kopuruaren arabera banatzen dituzte dominak, eta aurten 84 umek jaso zuten merezitako saria: hain zuzen ere, hamasei umek jaso zuten bost mendi igotzeagatik ematen duten domina; hemezortzi umek, hamar igotzeagatik; hamasei, hamabost igotzeagatik; hamalauk, hogeitau igotzeagatik; lauk, 25 igotzeagatik; hamarrek, 30 igotzeagatik; eta, azkenik, bi umek 45 mendi egin izanagatik jaso zuten domina. Roberto Garcia Morkaiko elkarteak kideak banatu zizkien sariak umeei.

Bazkaria

Eguna borobiltzeko bazkaria antolatu zuen mendi taldeak. Elizpean prestatu zuten oilasko-paella, eta hantxe bazkaldu zuten, guztiek elkarrekin.

Datorren urtean 100 urte beteko dira estreinako Elgoibarko Mendi Itzulia egin zenetik, eta, horren harira, Morkaikoko arduradunek sorpresak iragarri dituzte 2027ko ekitaldirako.

Kaleak hustu, eta Elgoibar inguruko mendiak jendez bete ziren zapatuan



Irribarrerik ez zen falta izan. A.O.



Malda gogorrenetan ateratzen da barruko indarra. ASIER ORBEA



Kalamuara bidean, onena ematen. ASIER ORBEA



Txitxibilaldi taldekoek ere ez zuten hutsik egin. A.O.



Itzulitxoa familian egin zuten askok. A.O.



Umeak, pozik, Itzulitxoan. A.O.



Finalista Eguneko dominak jaso zituzten umeak. AINHOA ANDONEGI



Erbuze taldeak antolatutako topaketa. AINHOA ANDONEGI



Bergarako gozogileak. A.A.



Iruñetik Elgoibarrera, dantzara. A.A.



Mutrikutik etorri ziren euskal mitologiako pertsonaiak. A.A.

Erraldoiak, dantzan; kilikiak, jotzen

Iruñeko, Mutrikuko eta Bergarako konpartsak gonbidatu zituzten

Ainhoa Andonegi

Erbuze Elgoibarko Erraldoi, Buruhandi eta Zezenzikleten Konpartsak antolatuta, erraldioen topaketa egin zuten zapatuan Elgoibarren, eta aurten Iruñeko Alde Zaharreko erraldoiak, Bergarakoak eta Mutrikukoak gonbidatu dituzte. Iaz bezala, Morkaiko Egunaekin bat egin zuten erraldioen topaketak; beraz, ez zegoen etxean geratzeko aitzakiarik. Goizean mendirako plana, eta arratsaldean, kalerakoa. Egun bete izan zen zapatukoa Elgoibarren.

Elgoibarko erraldoi eta buruhandiekin batera, Iruñeko Alde Zaharreko konpartsa, Bergarako eta Mutrikukoak bildu ziren topaketan. Iruñeko eta Bergarako erraldoiak aurrez ere egonda zeuden Elgoibarren, baina Mutrikukoak estreinakoz

etorri ziren herrira. Eguzkia ere batu zen ekitaldira, eta gotetik dotoretu zuten ikuskizuna. Erraldoi guztiak ikusgai jarri zituzten, lehenik, Kalegoen plazan, eta ez ziren gutxi izan haiekin argazkiak atera zituztenak. Kuriosoenak erraldioen gona azpitik barrura ere sartu ziren, erraldioen estruktura ezagutzeko. 17:30ean ekin zioten kalejirari. Santa Ana kalera egin zuten bidea lehenengo, eta San Bartolome kalean behera Kultur Etxe ingurura joan ziren. Han aurrean dantza bat egin, eta Maalarako bidea hartu zuten. Dantzaldia egin zuten Maalan, eta Kalegoen plazara itzuli ziren berriz. Han amaitu zen ekitaldia, guztiek batera dantzan. Mauxitxa txarangak eta dultzaineroek jarri zuten musika, eta ez ziren falta izan

hain ezagun egin diren *polonesa* eta *alemana* doinuak.

Buruhandiak

Erraldoiekin batera buruhandiak ere irten ziren kalera, gaztetxoaren gozamenerako. *Mari*, *Tartalo*, *Basajaun* eta *Basandere* Elgoibarko buruhandiez gain, Mutrikutik etorri ziren *Txotxolo*, *Txoro*, *Oker* eta *Alper*, eta korrika jarri zituzten ume guztiak.

Jendetza batu zuten topaketak; herritarrak ez ezik, inguruko herritatiekin ere etorri baitziren asko, erraldoiekin dantzan egitera. Bosgarren topaketa izan da aurtengoa, eta ekimenak urtetik urtera ikusmin handiagoa sortzen du herrian. Ume zein nagusi, batera, familia giroan, kalejiran ibili ziren erraldioen atzetik, eta asko ez ziren etxeratu azken erraldoia kamioian sartzen zela ikusi zuten arte.

EXPRESS ESKAINTZAK!

TEKA MWE FS25 G MIKROUHIN-LABEA

94,90 €

- 900w-ko potentzia
- Grill-ak 1000 w
- 25 litroko edukiera
- 0 eta 95 min bitarteko tenporizadorea
- Kontrol elektronikoa
- Aztarnen aurkako altzairu herdoilgaitza.



MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487
blreg@miar.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte



RPS 128/24

Zure barailaren ezaugarriak edozein direla ere, beti izango duzu irtenbide bat

Barailan hezur sendorik ez duzula esan dizute eta, ondorioz, ezin duzula inplanterik egin?

Aldaz hartz-klinikan kasurik konplexuenei ere topatzen diegu tratamendua. Teknika aurreratuak erabiltzen ditugu, hala nola inplante zigomatikoak eta azpiperiostikoak. Hartz finkoak eta funtzionalak berreskuratzeko aukera izango duzu. Zure kasua edozein dela ere, irtenbidea emango diogu. Hauek dira gure aukera orokorrenak:

- Barailan hezur nahikorik gabe zaude? Kasu horretan, masalezurtean ainguratuta inplante zigomatikoak ezarriko dizkizugu.
- Hezurrik gabeko kasuetan, beste aukera bat inplante azpiperiostikoak lirateke. Zure baraillezurte neurria moldatzen den marko bat sortzea izango litzateke. Ez du injerturik behar eta egun bakarrean egiten da.
- Kirurgia digitala litzateke, zehaztasun zehatza erabiltzen duen teknika. 3D plangintza bidez lortzen da, eta emaitza aurreikustea ahalbidetzen du. Oso teknika eroso da.
- Berehalako karga erabiliz, hartzak egun berean izan ditzakezu. Lehen egunetik estetika eta funtzionaltasuna lortzea eskaintzen duen teknika da azken hori.

Eskatu doako balorazioa Aldaz Hartz Kliniketan!



San Bartolome, 22 - Elgoibar
lyd@dentalaldaz.com

943 366 377

NIRE USTEZ

Gero arte



**IZARO ETXEGIBEL
SORALUZE**
EUSKARA IRAKASLEA

Zutabegile batek esan zidan, behin, gero eta azkarrago idazten zituela zutabeak; ez da nire kasua. Nola egiten dudana galdetuko balidate, ez nuke jakingo zer esan. Beti egiten dut desberdin, ezagutzen dudala uste dudana baina hutsetik hasten dudana zerbait da. Norbaiten interesekoa izango delakoan eta akats guztiekin. Motela naiz, esan nahi dudana baino gehiago, nola esango dudana erabakitzeke orduan. Hala nago oraintxe,

ordenagailuaren aurrean, zuri agur nola esan asmatu ezinda; agur edo gero arte.

Eman didate bozgorailu bat, batzuentzat musika izan da, besteentzat zarata, gehienei ez zaie kaioren intziria baino gehiago axola izan, baina eskertu dute urruneko hodeien eta lurraren artean norbait egotea barrenak husten.

Hau izango da hemen irakurriko duzun nire azken zutabea, eta eskerrak ematea besterik ez zait geratzen. Poztu egiten nau jakiteak nire hitzak irakurri dituzunean zerbait sentiarazi dizudala. Izan zarete gutxi batzuek kalean topo egin dugunean nik idatzitakoa

irakurri duzuela esan didazuenak, gustatu zaizuela edo zer pentsatu eman dizuela. Ondo. *"Ze guapa zauden argazkixan"* bati baino gehiagori ihes egiten saiatu naiz *"irakurri dozu testua?"* pentsatu dudana bitartean. *"Oso guapa BARRENeN..."* *"Bueno, ez dakit, ba"*, erantzun izan diet horrelakoei, azkenean.

Hemendik aurrera kalean ikusiko dugu elkar egunerokoan, eta, Onintza Enbeitak esan bezala, *"nik ere milioika emakumek egiten dutena egiten jarraituko dut: ezin denean ahal dena, eta ahal denean dena"*.

Eskerrik asko eta ondo izan.

KLIK

Zein azkar pasa den denbora



JOSERRA CABRERA
ARGAZKILARIA



Atzoko irudia badirudi ere, 20 urte igaro dira Elgoibarrera iritsi nintzenetik. Hemen duzue nire lehen argazkietako bat, Ikastolaren azpiko etxeak eraiki aurretik ateratakoa. Zein azkar pasatzen den denbora; batzuetan, azkarregi. Gozatu!



SEMAFORO

Txalo bat Morkaikori



"Ederra izan da, beste behin ere, Morkaiko Eguna. Ume zein nagusi, denak mendizaletasunaren bueltan bat eginda. Antolakuntza, primerakoa, eta bazkaria ere, mundiala. Sekulakoa da batzuek gozatzeko beste batzuek egiten duten lana. Primeran pasatu genuen. Eskerrik asko guztioi".



Eskerrik asko, Pello eta Javier



Altzolako auzo elkartetik eskerrak eman nahi dizkiegu Javier Elorzari eta Pello Arrietari, "beren eskuzabaltasunagatik, egiten jakiteagatik eta bizilagunei auzoari beste begi batzuekin begiratzen laguntzeagatik". Etorkizunean antzeko ekimenak errepikatzeke aukera egongo dela aurreratu dute, Altzolako ondare historikoari balioa ematen jarraitzeko. Mila esker!



"Herriko hainbat gunetan hondatuta daude espaloiak. Gabriel Krutzelaegi kaleko espaloian baldosak pitzatuta daude, eta batek baino gehiagok estropezu egin izan du. Urazandin, bestalde, baldosak solte daude hainbat gunetan. Euria egiten duenean, gainera, espaloia irristakor jartzen da. Herriko zoruak mantentze sakonagoa behar du".

Saskibaloian jokatzeko jendea behar du Elgoibarko Saskibalo Taldeak

Ekainean kalera aterako dute saskibaloia, jendeak kirola proba dezan

Ainhoa Andonegi

Elgoibarko saskibalo taldea jende bila dabil, datorren denboraldirako taldeak osatu ahal izateko. Aurtengo denboraldian hiru talde izan ditu klubak: infantilak, juniorrak eta seniorrak. Datorren urtera begira, baina, taldeak osatzeko zailtasunak izango dituztela aurreikusi dute; bereziki, infantiletan. Hori dela eta, 2013an eta 2014an jaiotakoak dei egin nahi diete, bereziki, baina kategoria guztietan behar dute jendea; beraz, interesa duen orok saskibaloia probatzeko ateak zabalik dituela adierazi dute arduradunek. Interesatek telefono honetara deitu dezakete: 618 25 93 39 (Carlos); edo mezu bat idatzi daiteke elgoibarsb@gmail.com helbidera.

Jokatzeko jendeaz gain, bo-luntarioak ere behar dituzte, klubean laguntzeko prest daudenak. Azken urteetan kluba hazi egin da, eta zailtasunak dituzte dena antolatzeko. Entrenatzaile aldetik ere urri dabilta, eta umeak entrenatzeko prest dagoen jendea ere behar dute. Uste dute umeak gehitu ahala gurasoak ere gehiago in-

prikatuko direla. Manex Bereziartua da infantil-kadeteen entrenatzailea, eta, aldi berean, seniorren taldeko jokalaria ere bada. Gustura dihardu bi zereginetan, baina "kluba sendotzeko beharra" dagoela dio, alderdi askotan. Carlos Lahoz ere beterranoa da saskibaloian, eta, jende falta ez ezik, azpiegitura aldetik ere Elgoibar "motz" geratu dela gaineratu du. Kiroldegiko kantxan entrenatzen dira, eta ordutegiak zailtasunak izaten dituzte. Askotan, bi talde entrenatzen dira batera, bakoitzak kantxa erdia erabiltita. Dena dela, nahiago dute jendez gainezka ibili faltan baino: "Interesa dutenak etorri daitezela probatzera".

Elgoibarko saskibalo taldeak 30 bat urte ditu, baina, orain dela bospasei urtera arte, saskibaloian jokatzeko gustuko zuen lagun-talde baten kontua zen saskibaloia. Carlos Lahozek esan duenez, senior talde bat sortu zuten, eta ez zuten klubaren harrobirik lantzen. Urteak pasa ahala, jokalaria haien semeak hasi ziren saskibaloian, eta horrela ekin zioten harro-

bia lantzeari. Lauzpabost urtetan, talde bakarra izatetik lau talde izatera pasatu dira. Beraz, harrobia hasi da fruituak ematen, eta seguru daude denborarekin sendotu egingo dela taldea.

Hala ere, uste dute Elgoibarren ez dagoela saskibaloirako joerarik, eta joera hori apurtu nahi dute. "Nire ustez, oso kirol polita da, eta, normalean, probatzen dutenei gustatu egiten zaie", esan du Lahozek. "Batzuk etortzen dira benetan gustatzen zaielako, eta, aldiz, beste batzuk sekula jokatu gabe etortzen dira. Baina, oro har, gehienak geratu egiten dira", gaineratu du.

Hiruko txapelketa

Ekainaren 27an egingo dute aurten hiruko txapelketa, eta egun horretan kalera aterako dute saskibaloia; hain zuzen ere, Lekuederrera. Hiruko taldeetan jokatu dituzte partidak, eta nahi duen herritar orok izango du egun horretan saskibaloia probatzeko aukera. Klubak Instagramen duen [Elgoibarsb](https://www.instagram.com/elgoibarsb) kontuaren bitartez eman behar da txapelketarako izena.



Manex Bereziartua entrenatzailea, haren taldekoekin. SASKIBALOI TALDEA



Kategoria guztietako jendea behar dute. SASKIBALOI TALDEA

28 lagun saritu dituzte Idazlan Lehiaketan

169 lan aurkeztu dituzte guztira

A.A.

Ikasleen artean euskaraz idazteko trebetasuna sustatzeko asmoz, Idazlan Lehiaketa antolatu du aurten ere Elgoibarko Udalak. 169 lan aurkeztu dituzte guztira, eta horietako 28 izan dira sarituak. Jasone Osorok, Jon Eugik eta Iñigo Otañok osatu dute epaimahaia, eta, haien ustez, pozgarria izan da aurtengo parte-hartzea. Nabarmendu dute aurtengo edizioan lan bi-



Saridunak, sariekin. AINHOA ANDONEGI

kainak aurkeztu dituztela, irudimenari dagokionez. Era berean, aipatu dute urteetan aurrera egin ahala ez dela hain erraza

izaten irudimena lantzea, eta horrek eragin dezakeela DBHko eta batxilergoko mailetan parte-hartzeak behera egin izana.

Beraz, bereziki, 12 urtez gorakoak egin diete parte hartzeko dei.

Udalak liburu batean argitaratu ditu aurreko bi edizioe-

tako lan sarituak. Ikastetxeetan, Liburutegian eta Udalaren webgunean kontsultatu daitezke.

Herriko bost talderen kontzertuak eta bertzio gaua izango dira, bihar, EME Egunean

Eguerdian hasi, eta gauera arte iraungo du festak

Ainhoa Andonegi

Elgoibarko Musikarien Eguna ospatuko dute bihar, eta, horren barruan, Pedro Mugurutzako eskoletan entseatzeko duten bost musika-taldeak kontzertuak emango dituzte. Eguerdian hasiko dira emanaldiak, Aita Agirre plazan: Gabi eta Alfon bikoteak joko du, 12:30ean, eta, segidan, Leftovers taldeak. Bazkaria egingo dute ondoren, Maalako parkean, eta iluntzean ekingo diote festaren bigarren zatiri. 19:00etan hasita, Xut, Brilet eta Ellie Jensen taldeek joko dute. 22:00etan, bestalde, hainbat taldetan dabilzan musikariek bertzioak egingo dituzte.



Leftovers taldea, iazko ekitaldian. AINHOA ANDONEGI

Elkartea, kezkatuta

79 bazkide ditu elkarteak; sorre-za ezker, bikoitza. Alde horretatik, osasuntsu dago elkarteak, baina kezkatuta daude Pedro

Mugurutza eraikinaren erais-tearekin. Ondorioak ahalik eta txikienak izateko hainbat ideia

badituztela aurreratu dute, eta egoera Udalarekin aztertu nahiko lukete.

Sorotan Bele taldearekin emango du kontzertua Udal Musika Bandak

Ekainaren 12an izango da, 22:30ean, Kalegoen plazan

A.A.

Elgoibarko Udal Musika Bandak ohiko saioetatik aldentzen diren emanaldiak antolatzeke ekimena jarri zuen abian 2016an, besteak beste, publiko "berria eta gazteagoa" erakartzeko asmoarekin. Harrezkero, urtero egin izan dute saio bereziren bat, eta aurten Sorotan Bele taldearekin emango dute kontzertua. Ekainaren 12an izango da, Kalegoen plazan, 22:30ean.

90eko folk-doinuak

Taldeko lau kide arituko dira bandarekin: Gorka Sarriegi abeslaria, Urbil Artola gitarrista, Ritxi Salaberria baxu-jolea eta Aitor Etxaniz perkusionista. 2021ean estreinatu zuten *Sorotan Bele gogoan* emanaldia, Larrabetzun. Izatez, 2020rako zuten iragarria, taldea sortu zenetik 30 urte igaro zirela ospatzeko;

eta 1990ean lehen kontzertua eman zuten herri berean estreinatu nahi zuten ikuskizuna, Larrabetzun. Pandemiagatik 2021era atzeratu behar izan zuten, eta, ordutik, hainbat herritan jo dute. 1992an sortu zuten

taldea, Hondarribian, eta Euskal Herriak izan duen folk-pop talderik gogoangarrienetakoa izan zen. Lau urtean, 1992etik 1996ra, hiru disko argitaratu zituzten. Garai hartako doinuak ekarriko dituzte Elgoibarrera.



'Sorotan Bele gogoan' emanaldiko irudia. INTERNET

Urtean zehar eginiko lanak jarriko dituzte ikusgai, bihar, Zientzia Azokan

A.A.

Zientzia Azoka egingo dute, bihar, Sigmako probalekuan, eta Elgoibarko ikastetxeetako ikasleek ikasturtean zehar egin dituzten zientzia-lanak erakutsiko dituzte. Taldeka banatuta, bakoitzak bere esperimenduaren berri emango die ikasleei, 11:00etan hasita. 231 ikasle eta 19 irakasle hartuko dute parte. Era berean, Elhuyarekin elkarlanean Udalak sustatzen dituen Bizilabe eta Robotika tailerretan parte hartzen duten ikasleek ere izango dute euren txokoa, eta tailerretan ikasitakoari buruzko azalpenak emango dituzte.

Tailer zientifikoak

Zientzia-tailerak ere egongo dira aukeran, eta, adinaren arabera, hainbat esperientzia bizi-tzeko aukera izango dute ikasleek. Txikientzako jolas parkea eta txikitxokoa egongo dira, eta, adinean aurrera joan ahala, bestelako tailerrak ere izango

dituzte aukeran. Erronka teknologikoak, ginkanak, muntaiak eta beste hainbat kontu ere prestatu dituzte. 578 plaza eskaini dituzte, eta dagoeneko gehienak beteta dauden arren, HH, LH1 eta LH4ko umeentzako eskaintzan badago oraindik parte hartzeko aukera. Azokan bertan informazio mahai bat egongo da tailerrei buruzko informazioarekin.



lazko azokan. AINHOA ANDONEGI

Ekainaren 18an ospatuko dute Tertuliak egitasmoaren 25. urtemuga

Tertuliak egitasmoan parte hartu izan duten herritarrak gonbidatu nahi dituzte ospakizunera

A.A.

Tertuliak egitasmoa 2001ean jarri zuen martxan Elgoibarko Izarrak, Udalaren, AEK euskaltegiaren eta Udal Euskaltegiaren lankidetzarekin, euskaraz berba egiteko aukerarik edo erraztasunik ez zutenei euskaraz hitz egiteko aukera emateko. Euskara ikasten ari zirenei beren ikaskuntza-prozesuan laguntzeko abiarazi zuten, eta euskaltegiaren ikasgeletan ikasten zutena praktikan jartzeko aukera eskaintzea zen helburua. Lauzprobost laguneko taldeak osatu, eta astean ordubetez biltzen hasi ziren, euskaraz jarduteko. Talde bakoitzean euskaraz ondo hitz egiten duen *bidelagun* bat dago, eta gainerakoak *bidelariak* dira. Gaiak guztien artean aukeratzen dituzte; azken batean, kontua euskaraz hitz egitea da.

Ospakizunerako gonbita

25 urte pasatu dira Tertuliak egitasmoa abiatu zutenetik, eta, horren harira, arduradunek erabaki dute ospatzeko moduko ibilbidea egin duela. Hortaz, ekainaren 18an egingo dute ospakizuna, eta, ospatzeko ez ezik, tertuliakideei eskerrak emateko ere baliatuko dute ekitaldia. Horretarako, bertan parte hartu dutenen bila ari dira antolatzaileak; izan ere, 25 urte hauetan *bidelagun* eta *bidelari* izan direnak batu nahi dituzte ospakizunean. Horietako bat zarela uste baduzu, Elgoibarko Izarra kultur elkartera jo dezakezu, informazio eske. Bi bide jarri dituzte: 943 74 16 26 telefono-zenbakia eta elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus helbide elektronikoa, hain zuzen ere.

'Nahi eta ezin' antzerkia taularatuko du Taupada taldeak, gaur, Herriko Antzokian

20:30ean hasiko da emanaldia, eta sarrerek salgai daude dagoeneko

Ainhoa Andonegi

Elgoibarko Taupada Antzerki Taldea obra berri batekin igoko da gaur Herriko Antzokiko oholtzara: *Nahi eta ezin*. Edurne Lasak zuzendu du obra, eta Jose Mari Larrañagak egin ditu teknikari-lanak. Sinopsiak hauxe dio: Pello Lobetek papiroflexiaren artean trebeena izan nahi du, eta ezagun izatea du amets, baina, errealitatean, hori ez da hain erraza: haren asmo onak eta ahalegin handiak, behin eta berriz, ezustean zapuzten dira. Porrot txikien kate batek egoera barregarriagotara eramango du. Ruben Marinkak antzetzuko du Pello Lobeteren papera, eta inguruan izango ditu Taupadako beste zenbait aktore: Nerea Cuende, Gorane Ayesta, Eduardo Ayesta, Gorka Fernandez, Eire Marinkina, Rosa Mata, Ibai Leon,

Maite Barandiaran eta Teresa Arakistain,

Sarrerek salgai daude

Emanaldia 20:30ean hasiko da. Sarrerek salgai daude dagoeneko, herrikoantzokia.eus webgu-

nean, baina antzerkia hasi aurretik ere egongo da erosteko aukera, Herriko Antzokiko leihatilan. Sarrera arruntak 10 euro balio du; eta Gazte Txarteldunek eta jubilatuek 3 euro ordaindu beharko dituzte.



Karteleko irudia. NEREA CUENDE

ETS taldeak kontzertua emango du San Bartolome jaietan

Abuztuaren 29an izango da, Baserritarren Egunean, Kalegoen plazan

A.A.

Sune, Puro Relajo eta Kaparrak taldeen kontzertuak iragarri zituen Elgoibarko Udalak sanbartolomeetarako, eta aste honetan osatu dute jaietako musika eta ikuskizunen egitaraua. Besteak beste, ETS, Gozategi eta Elgoibarko Musikarien Elkarteko Alguillo & Alkimistak eta Muzak taldeek joko dute.

Egitarau zabala

Musika emanaldiak abuztuaren 23an hasiko dira, San Bartolome Bezpera Egunean. 22:00etan, Elgoibarko Muzak taldearen emanaldia izango da, Kalegoen plazan, eta 23:00etan Sunek hartuko du lekukoa. San Bartolome Egunean, hilaren 24an, Alguillo & Alkimistak taldeak emango du kontzertua, 21:30ean hasita, eta 22:30an hasiko da Gozategiren emanaldia.



Iñigo Etxezarreta. INTERNET

Abuztuaren 25ean, Txiki Egunean, kalea bihurtuko da agertoki: 19:30ean, Rock Kalean taldearen kalejira izango da, eta gaur Deabru Beltzak taldearen

su eta perkusio ikuskizunak hartuko ditu kaleak.

Abuztuaren 27an, Jubilatuen eta Umeen Egunean, Puro Relajo taldeak girotuko du gaua. Abuztuaren 28an izango da Gazteen Eguna, eta ordurako Elektrotxufla elektrotxarangaren kalejira eta Kaparrak taldearen kontzertua iragarri dituzte.

Azkenik, jaiak amaitzeko, ETS taldeak emango du kontzertua, abuztuaren 29an. Bartzelona eta Madril *konkistatu* ondoren, taldeak aurreratu zuen hainbat kontzertu emango zituztela uda honetan, datorren urtean Buesa Arenan jo aurretik. Horietako plaza bat izango da, hain zuzen ere, Elgoibarkoa. Kalegoen plazan izango da kontzertua, 23:00etan, eta gero, Mauxitxa txarangak kalejira egingo du, plazan hasi eta Maalaraino.

Sexu eta genero aniztasunaren aldarria ikusgai queer erakusketan


A.A.

Elgoibarko Udaleko Berdintasun Sailak queer erakusketa antolatuko du, LGTBI+ errealitateari ikusgarritasuna emateko. Elgoibarko Udalak herritarren arteko errespetua, inklusioa eta aniztasuna sustatu nahi du, oraingo honetan artea erabiliz tresna gisa. Erakusketak artearen historiaren ibilbide bat proposatzen du, sexualitatea eta askotariko identitateak erdigunean jarriz. Horren bidez, bisitariak iraganetik gaur egunera arteko begirada bat jaso ahal izango dute, aniztasunaren ikuspegiak. Erakusketan ikusgai egongo diren artelanak Teresa Castro, Ruben B. Caballero eta Xanti Garcia artistek sortu dituzte, euren begirada eta sentsibilitate propioa ekarrita.

Bisita gidatuak

Queer erakusketa Aita Agirreko erabilera askotariko aretoan jarri dute ikusgai, eta maiatzaren 28ra arte egongo da zabalik,

Kultur Kafea zabalik dagoen ordutegian. Erakusketa hobeto ezagutzeko, bisita gidatua egingo dute datorren domekan, maiatzaren 17an, eguerdiko hamabietan. Interesa dutenek aldeztu aurretik eman behar dute izena, esteka honetan: labur.eus/kuirelgoibar.



Erakusketako irudi bat. AINHOA ANDONEGI

Egur-arte tailerreko ikasle helduen lanak ikusgai daude Kultur Etxean

A.A.

Egur-arte tailerreko ikasle helduek urtean zehar eginiko lanak ikus daitezke Kultur Etxeko erakusketa-gelan. Joan den barikuan inauguratu zuten erakusketa, eta bihar arte egongo da zabalik. 18:30etik 20:30era bisitatu daiteke. Helduen ostean,

umeen txanda etorriko da, eta hilaren 22tik 30era bitartean umeek eginiko artelanak jarriko dituzte ikusgai, leku berean eta ordutegi berean. Sormena lantzen dute tailerretan, eta askotariko teknikak erabiltzen dituzte horretarako. Denetariko lanak ikusteko aukera egongo da.



Erakusketako artelan bat. ASIER ORBEA

Mayi Mujikak irabazi du Domusa 40 MLK mendi lasterketa

Asier Orbea

Azpeitia inguratzen duten mendi gailurren artean jokatu zuten Domusa Teknik 40 MLK mendi lasterketaren bosgarren ekitaldia. Bi distantzian jokatzeko proba: 65 kilometroko proba nagusia –Domusa Teknik 40 MLK– eta 15 MLK izenekoak, 26 kilometrokoa. Proba nagusian 580 saltakari lehiatu ziren, 60 emakumeak, eta Mayi Mujika elgoibartarra izan zen azkarrena, ibilbidea 7:25:24ko denbora eginda. Aurreko edizioetan bigarren –2024koan– eta laugarren postuak zituen eginak Mujikak, baina hau du aurreneko garaipena. Eta erakustaldia eginda irabazi zuen, lehen postuan igaro baitzituen kontrol-gune eta gailur guztiak. Kilometroak pasa ahala jarraitzaileekiko alde handitu egin zuen Domusa Teknik Lana taldeko kideak, eta helmugan ia 15 minutuko alde atera zion bigarren postua eskuratu zuen



Mayi Mujika, garaipena ospatzen, goian, eta mendian korrika behean. 'GUKA'

Ainara Arkarazo abadinarrari (7:39:39). Arkarazoren herrikide Oihana Azkorbebeitia heldu zen helmugara hirugarren postuan (7:42:44).

Aurreko urteetan eginiko postuak hobetzeko gogoaz bazuen ere, aurtengo ekitaldia irabazterik ez zuela espero adierazi zuen Mujikak amaieran.

San Migel taldeko bolarien eta Ibarluzea aita-semeen erakustaldia etxeko tiraldian

Etxeko bolatokian aritzeari etekina atera diote San Migel taldeko bolariak

A.O. AIASTIA

Gipuzkoako Hiru Txirlo bola-joko txapelketako zazpigarren jardunaldia hartu zuen zapatuan Aiastiako bolatokiak, eta San Migel taldeko lau bolari sailkatu ziren aurreneko lau postuetan. Ion Ibarluzea izan zen guztietan onena, bost txirlo botata. Irazlearen aita –Gipuzkoako txapela sei alditan irabazitakoa den Angel Ibarluzea– sailkatu zen bigarren postuan, lau txirlo botata. Aiastiako txapelketako bolatokitik zailenetakoa den arren, sekretu gutxi du San Migel taldeko bolariantzat. Hirugarren eta laugarren postuetan ere taldeko bolariak sailkatu ziren: Iker Izagirre hirugarren postuan, lau txirlorekin; eta Xabier Loiola laugarren postuan, hiru txirlo botata. Guztira 64 bolari lehiatu ziren Aiastiako tiraldian.

Bihar, Asola Berrin

Hurrengo jardunaldia Eibarko San Andres bolatokian jokatu dute, bihar. Zazpi jardunaldi jokatu eta gero, Gorka Madina-beitia (Aretxabaleta, 1969) dago sailkapenburu, 32 txirlorekin,

eta alde polita pilatu du aurkarietara, oraindik erabakigarria ez den arren. UDA taldeko ordezkariak zazpi txirloko alde ateratzen dio bigarren sailkatua den Elgeta taldeko bolari Bittor Astigarragari.



Lehen sailkatuak, bakoitzak eginiko postuari dagokion zenbakiarekin. Lagatakooa.

Haundiri ihes egin dio igoeraren ametsak



Haundi taldekoak, partida batean. A.O.

A.O.

Mailaz igotzeko lehiak ibili da emakumezkoen Haundi taldea denboraldi osoan, baina aurrerik gabe geratu da liga amaitzeko bi jardunaldiren faltan. Azken bost partidetatik hiru galdu dituzte elgoibartarrek; azkena, etxean, Tolosaren aurka, 1-2. Aldiz, igoera lortzeko lehiak aurkari nagusi dituen bi taldeek, Bergarak eta Intxaurdik, ez dute hutsik egin. Bergara taldea dago sailkapeneko aurreneko postuan,

67 punturekin; eta Intxaurdi dago bigarren postuan, 64 punturekin. Lehenengo sailkatua zuzenean igoko da Euskal Ligara eta bigarrenak Bizkaiko eta Arabako bigarrenen aurka jokatu du, igoera eskuratzeko jokoan izango den beste txartelaren bila. Haundik 55 puntu ditu sailkapenean, eta, hortaz, jokoan dauden sei puntuak eskuratu ere, ez litzateke nahikoa izango lehen bi sailkatuak gainditzeko.

Xabier Barrueta, Gipuzkoako txapelburua

A.O.

Txirrindulari kadeteen Gipuzkoako Txapelketa jokatu zuten asteburuan, Zumaian, eta Elgoibarko Besa-Geminis taldeko Xabier Barrueta (Eibar, 2010) bigarren izan zen, Dimarq-Ipar Maquina taldeko Daniel Diazen atzetik. Guztira, 160 txirrindulari inguru lehiatu ziren. Horien artean Debarreneneko zazpi abiatu ziren, eta lauk bukatu zuten 56 kilometroko lasterketa. Aipagarria da Besa-Geminis taldeko Markel Diazek egin zuen denbora; lehenengo urteko kadetea da Diaz, eta sailkapen na-



Xabier Barrueta, podiumean. ELT

gusian hamaikagarren izan zen (1:22:27). Xabier Barruetaren eta Markel Diazen taldekide Oier Arriola mendarorarrak ere bukatu zuen lasterketa (1:24:19), bai eta Mutrikuko Atxukale taldeko Unax Badiolak ere (1:25:56).

Lariz eta Lendinez, maila onean Txindokian

A.O.

Aurreko larunbatean jokatu zuten Txindokiko kilometro bertikala, Euskal Herriko Bertikalen Kopako lehen proba. Larraizko ermita (Abaltzisketa) eta Txindokiko gailur artean lehiatu ziren 160 mendi lasterkari. Gizonezkoetan Oier Zubeldia amezketarra izan zen azkarrena (36:50), eta

Maidier Unanue aramarra gailendu zen emakumezkoetan (46:22).

Master mailan, A kategorian, Ainhoa Lendinez eta Iñigo Lariz izan ziren azkarrenak. Lariz sailkapen nagusiko bosgarren postuan sailkatu zen, 38 minutu eta 36 segundoko denborarekin; irabazleak baino minutu bat eta 46 segundo gehiago. Era berean, Lendinez ere bosgarren postuan sailkatu zen emakumezkoen sailkapenean (50:51).

Itzultzaile gazteentzako III. Minaberri itzulpen-beka irabazi du Arkaitz Urangak

Jürg Schubiger idazlearen 'Als die Welt noch jung war' liburua euskaratuko du

Ainara Argoitia

EIZIEk Iruñeko Udalarekin lankidetzan antolatutako Minaberri beka eskuratu du Arkaitz Uranga Urbietak (Mendaro, 2002), BARRENAk kolaboratzaile dugunak. Jürg Schubiger idazlearen *Als die Welt noch jung war* liburua euskaratuko du, Naroa Zubillaga Gomez mentorearen laguntzarekin. Liburua Txalaparta argitaletxeak emango du gero argitara.

Nazioarteko gazte-literaturako lan esaguratsua euskaratzeko ematen dute Minaberri beka, eta itzultzaile hasiberriei dago zuzenduta. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, aurtentzen, sei gazte aurkeztu dira bekaren deialdira, eta, guztien lanak aztertuta, Urangaren alde egin du epaimahaia.

Urangak Itzulpenegintza eta Interpretazioko Gradua ikasi zuen EHUUn, eta Euskal Kulturaren Eragiletzan Unibertsitate Masterra egin zuen ondoren, Mondragon Unibertsitatean. 2025az geroztik, euskara-teknikari ari da Eibarko Udalean.

Epaimahaiaren azalpena

Epaimahaikideek zehaztu dute ahozkotatua eta elkarrizketatik gertuko erregistroa izan



Arkaitz Uranga Urbietak itzultzailea. UTZITAKOIA

direla aurtengo itzulgaiaren berezitasunak. Jürg Schubiger-en lana ipuinek osatzen dute, eta kontalariaren eta entzulearen arteko solasa "gertukoa eta bizia" da. Bada, epaimahaiaren arabera, itzultzaile mendaroarrak "bikain" jaso du hori dena alemanetik euskararako itzulpenean, euskararen adierazkortasunaz baliatuz horretarako: "Erritmoa errespetatu eta naturaltasunez ondu du testua, hizkuntza sinisgarri nahiz freskoan", azpimarratu dute. Ainhoa Mendiluze Ormaetxeak, Ibai Sarasua Garciak eta Naroa Zubi-

llaga Gomezek osatu dute epaimahaia.

Urangak euskaratuko duen liburuagatik Literaturako Alemaniako Saria jaso zuen Schubiger-ek 1996an, eta IBBYren Hans Christian Andersen saria, berriz, bere haur eta gazte-literaturako obra osoagatik, 2008an.

EIZIEtik jakinarazi dute, bestalde, bekaren iazko irabazleak, Leire Errandonea itzultzaileak, euskaratu duela Marie-Aude Murail idazlearen *Sauveur et fils* liburua. Xabier Olarra izan du mentore egiteko horretan, eta liburua udazkenean dute argitaratzekoa.

Azpilgoetako autobus geltokia egokitzeko lanak, hastear

A.A.

Atzo, osteguna, ziren jartzekoak seinale berriak Azpilgoetan, eta astelehenean, maiatzaren 18an, dira hastekoak autobus geltokia egokitzeko lanak. Mendaroko Udalak jakinarazi duenez, Otegi Gaztañaga enpresak egingo ditu lanak, Gipuzkoako Foru Aldundiak lizitatuta, eta 150.000 euro inguruko kostu totala izango dute -BEZa barne-, hasieran beste zenbateko bat zabaldu bazen ere. Gipuzkoako Foru Aldundiak esana du gaur errepidea den zatian autobus geltokia egokitzeko trafikoa moteltzeko neurriak hartuko di-

tuztela, Debarako noranzkoan ez dagoelako errepidea ibai aldera zabaltzeko aukerarik. Zehaztu dutenez, hamar asteko epea izango dute lanak amaitzeko.

Gaur egun, Debarako noranzkoan, errepide nagusiaren erdian gelditu ohi da autobusa Mendaroko Azpilgoeta auzoan, eta arriskutsua gertatu ohi da oso, bai gainerako ibilgailuentzat eta bai garraio publikoaren erabiltzaile direnentzat eurentzat ere, errepidearen bazterbidean egon behar izaten dutelako autobusaren zain, ibaitik bereizten duen petrilaren kontra.

Soinu eta argi bidezko sistema Santa Anako trenbide-pasagunerako

A.A.

Santa Anarako trenbide-pasagunea seguruago egiteko eskerra aspaldikoa du Mendaroko Udalak. Izan ere, ikuspegia oso mugatua da inguru hartan, bihurtu gunearen ondorioz. Hala, Santa Ana ermitaren eta ondoko aisialdi-gunearen hurbiltasunagatik, batetik, eta inguruko baserrietarako joan-etorriengatik, bestetik, leku arriskutsua izan da beti oinezkoentzat eta ibilgailuentzat. Are arriskutsuagoa udan, trenen maiztasuna handitzen denean. Bada, Udala-

ren eskariz, ETS Euskal Trenbide Sareak A2 klaseko bidegurutze gisa katalogatu du orain, gune haren arriskuaren balorazioa egin ondotik. Ondorioz, klase horretako trenbide-pasabideei ezartzen zaizkien babes-neurriak ezarriko dizkiote. Hau da, seinale finakoak jarriko dituzte, bai eta argi eta soinu bidezko seinale automatikoak ere, oinezkoen zein gidariei tren hurbiltzen ari dela ohartarazteko. ETSren aurreikuspenak betetzen badira, irailerako bukatuta izango dituzte lan horiek.

Rosa Marinen ballet-ikasleak Villarcayon arituko dira hilaren 31n

'Entre guitarra y danzas' ikuskizuna egingo dute

A.A.

Rosa Marinen ballet-ikasleak Villarcayon (Burgos, Espainia) dantzatuko dira hilaren 31n, Leonardo Alonso gitarra jotzailer argentinarrarekin batera egingo duten *Entre guitarra y danzas* ikuskizunean. Dantzarien artean adin guztietakoak daude, haur eta heldu, eta, mendarokoez gain, Marinek Hornan duen beste eskola bateko ikasleak ere ariko dira. Dantzari zenetik ezagutzen du Marinek Alonso

gitarra jole eta konpositorea, aritua delako harekin ikuskizun askotan. 2000-2006 artean Malevaje taldeko kide izan zen Alonso, eta Lunfardo taldea sortu zuen 2003an. 2008az geroztik gitarra irakasle dabil, eta Bilboko Koral Elkarteak Gitarra Orkestrako zuzendaria ere bada. Disko ugari ditu argitara emanda, bakarka nahiz Pepe Pla klarinete jolearekin batera. Villarcayoko antzokian egingo dute ikuskizuna, 18:00etan hasita.



Rosa Marinen ikasle-talde bat. ROSA MARIN

Zinegoak jaialdiko film laburrak emango dituzte, etzi, igandea, San Agustin aretoan

A.A.

Homofobiaren, Lesbofobiaren eta Transfobiaren Kontrako Nazioarteko Eguna da igandea, eta, egun horren harira, Zinegoak jaialdiko filmak emango dituzte San Agustin aretoan. Zinegoak jaialdiaren barruan, 100 lan baino gehiago taularazten edo proiektatzen dira urtero; gehienak, nazioarteko jaialdietan saritutakoak. Sei film emango dituzte Mendaron, jatorrizko bertsoan, azpitu-luekin.

Eskubaloian lehiatzeko jaioak dira ermuarrak

Urrezko Ohorezko Mailara igo da Lauko Ermuko Errotabarri; eta Super Amara Bera Berak Erreginaren Kopa irabazi du, hamargarrenez. Errotabarriren gazte eta kadete kategorietako taldeak ere Estatu mailako txapelketetan lehiatuko dira asteotan

Ander Gomez

Lauko Ermuko Errotabarririk Galizian eman zuen aurreko asteburua, Zilarrezko Ohorezko Maila utzi eta Urrezkora igotzeko fasean. Hiru partida zituzten, eta, ligan bezala, matematikoki txapeldun bihurtu ziren bigarren jardunaldian. Hala ere, lehiatu beharreko partidak izan ziren: lehen hitzordua Sevillako Helvetia Montequentoren kontra izan zuten, eta 31-28 gailendu ziren; bigarrena ere bi goleko aldearekin irabazi zuten, Valentziako Marni Rosvalen kontra, 22-20; eta hirugarrena 25-25 berdindu zuten, etxean jokatzeko zuten Helvetia Saeplast Cañiza aurkari. Pozik eta hunkituta ospatu zuten igoera, ebakuntza batengatik Galiziara joan ez zen Mara Fernandez taldekidea eta lorpen hori ikustera ailegatu ez diren guztiak gogoan.

Aldi berean, Erreginaren Kopa jokatu zuen Super Amara Bera Berak, etxean. Ermuko zaleak finalaurrekoetan joan ziren Donostiara, eta taldea 25-23 gailentzen ikusi zuten, Elda Prestigio valentziarren kontrako partida lehiatuan. Finalean, Galiziako Mecalia Atletico Guardes izan

zuten aurkari, eta 26-21 nagusitu ziren. Horrela, hamargarren Erreginaren Kopa irabazi zuen Bera Berak, laugarrena jarraian. Partida aurretik omenaldia egin zioten denboraldi honetan taldearen gidaritzatza utziko duen Imanol Alvarez ermuarrari; eta, garaipenarekin, amaiera borobila eman zion lehen taldearen entrenatzaile ibilbideari. Anne Erauskin ermuarra kapitain izan da denboraldi honetan, Maitane Etxeberriarekin batera, eta biek batera altxatu zuten kopa.

Harrobia ere, sendo

Egui Errotabarriko gazte mailako taldea Espainiako Top-8 txapelketan lehiatzen ari da, eguaztenetik domekara, Valentzian; Apalategui Errotabarriko kadeteek Espainiako Sektore Fasea jokatu dute datorren astean, eguenetik domekara, Bartzelonan.

Klubak gogorarazi du harrobia txiki-txikitatik hazi eta hezi behar dela, eta domeka honetan, maiatzak 17, eskubaloia eskolako azken hitzordura batzeko aukera dutela 2018 eta 2019. urteetan jaiotako umeek.



Lauko Errotabarri, Galiziara joan zen afizioarekin, txapeldun izendatu berritan. UDALA



Erauskin, Bera Berarekin irabazitako Erreginaren Kopa eskuan. B.B.



Gauerdian ailegatu ziren Ermura, eta harrera egin zieten Kaltxango plazan. J.I.



Imanol Alvarezi omenaldia, Illunben. B.B.



Ermuko Udalarai aitortza, A Cañizan. A.C.U.



Galiziara joan ezin izan ziren hamarnaka herritarrek Donostiarako busa hartu zuten, Bera Bera animatzeko. NORA GASTON

Abesbatza
Gitarra
Perkusioa

Bande
Gitarra elektrikoa
Pianos

Biolina
Gitarra baxua
Saxofoi

Biolontxeloa
Musika Hizkuntza
Trikitia

Flauta
Klarineta
Tronboia

Panderoa
Tronpeta

MUSIKA ESKOLA

943 17 12 98

albokamusikaeskola@hotmail.com

ZERMIK

SISTEMA ELEKTRONIKEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

www.zermik.com

Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidetako diseinu elektronikoa garatzen espezializatuta dagoen ingeniaria-entresa da. Homez gain, Lab/ESI-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

Barrena

DEBABARRENEKO KOMUNIKAZIO TALDEA

Jarri ezazu suse publikitatean
BARRENA astekarian
edo
www.barrena.eus
webgunean

943 743 704
688 769 657



Gaur arratsaldean egingo dute ekitaldi instituzionala, bandera-igoerarekin eta ereserkia joz. G.Z.



Gauean, ordu txikitán egingo dute ohiko queimada, Galiziar Kultur Etxe kanpoan. G.Z.

Dantzan eta jaki tradizionalak dastatzen borobilduko dute Letra Galiziarren Astea

Domekan hasi zen ospakizuna, baina ekintza gehienak asteburuan izango dira

Ander Gomez

Galiziar Kultur Etxeak antolatutako jaiak berrogei urte bete ditu. Hain zuzen ere, urtero Galiziako literaturako pertsona bat omentzen dute, eta aurtengoa Begoña Caamaño kazetari eta idazlea izango da.

Hilaren 10ean hasi zuten, eta, geroztik, txapelketa bat izan dute egunero: igel-toka izan zen lehena, tute eta mus karta-jokoekin hasi zuten astea, mahai-futbolarekin jarraitu, eta chavarekin bukatu zuten atzo. Hala ere, lehiak alde batera utzi

eta arteari tokitxo egiteko tartea ere hartu dute, eguazteneko umeen eskulan-tailerrarekin. Egitarauko kultur ekintza nagusiak, ordea, astebururako laga dituzte. Gaur arratsaldean hasiko dituzte.

18:30ean, San Isidro kaleko olagarro-postua zabalduko dute, eta bestelako jaki tradizionalak dastatzeko aukera ere egongo da: haragi txigortua, txorizoa, txerri-belarria eta txerri-muturra, enpanadak... 19:00etan, banderaren igoera ekitaldia egingo dute udaletxean, eta, os-

tean, tabernaz taberna ibiliko dira, Eibarko Os Galaicos taldearen gaita-poteoan.

Baina barikuko programa ez da egunarekin bukatuko. 23:00etan, ordu txikiak arte iraungo duen ikuskizuna hasiko du DJ Chek. Tartean, 01:00 aldera, ohiko queimada egingo dute San Isidro kalean bertan.

Zapatu eguerdian, Marina pregoilariak aurkeztuko du ofizialki Letra Galiziarren 40. aldia, Orbe Kardinala plazan. Ondoren, kantu eta dantza erakustaldiari ekingo diote, Txindurri Dantza

Taldearen eta Extremadurako Zentroko zein Eibarko Galiziar Kultur Etxeko kideen parte-hartzearekin.

14:00etan, agintariekin batera egingo duten ohore-ardoaren ostean, Os Galaicos taldearen emanaldia egongo da San Isidron, dantza eta gaita erakustaldiekin. Bukatutakoan, Urrezko Intsignia emango diote bazkideetako bati, urte luzez Galiziar Kultur Etxeari erakutsitako konpromiso eta dedikazioagatik.

Gaua Pontevedrako Alabama orkestrak girotuko du, plazan. Bi txandatan arituko dira: 19:00etatik 22:00etara eta 23:30etik 02:00etara. Baina ordu eta erdiko atsedenaldirik horretan musikak ez du etenik izango: Ermuko Begibide taldea igoko da taula gainera, erromeria kantu zahar zein berriekin plaza dantzan ipintzera.

Domeka eguerdian, Kultur Etxeko bazkide eta laguntzailentzako ohore-ardoa egingo dute; eta, 12:30etik 14:00etara, Alabama orkestraren bermut-saioarekin agurtuko dituzte aurtengo jardunaldiak.

Era berean, antolatzaileek gogoratu dute asteburu osoan txikienezako barrakak egongo direla Okin Zurin.

Asteko jokoan irabazleak

- **Igel-toka:** Jose Benito Pepote
- **Tute:** Matilde-Elias
- **Mus:** Iñaki-Josetxu
- **Mahai-futbola:** Ekain-Odei

Belaunaldi berriak rock musikan hezten

Egun osoko egitaraua izanik, gaztetxoek ere Vertigo Rock jaialdiko programaren zati handi bat ikusteko aukera izan zuten zapatuan. Kaleko kontzertuetan lehenengo ilaretan izan ziren; *Xabi Ciarsolo* eta plazako eszenatokietako kontzertuak ikusteko, berriz, gurasoen sorbaldetara igo ziren asko. Batzuek belarri-babesak jantzita, beste-zuek soinua zuzenean entzuten, guztiek sentitu zuten rock, punk eta metal doinuaren dardara.

Argazkian, Eibarko Judash-ek emandako lehen kontzertuan batu zen ume kuadrilla, Markel Iraola abeslariarekin batera eta taldearen kamiseta soinean.



ANDER GOMEZ

Gaurko programatuta zegoen 'El encargo' antzezlan bi aste barru taularatuko dute

Mikel Areitourtenak zuzendutako *El encargo* antzezlan egin behar zuten gaur, Ermua Antzokian. Baina Udaleko Kultura Sailak aditzera eman duenez, bertan behera geratu da, ikuskizun eta ekitaldietako teknikarien sektorea grebara deitu dutelako.

Ondorioz, emanaldia maiatzaren 29ra atzeratu dute. Toki eta ordu berean izango da -Antzokian, 20:30ean-, eta aldez aurretik erositako sarrerek data berri-rako balioko dute. Sarrera bueltatu nahi dutenek 943 70 87 00 telefono zenbakira deitu dezakete, dirua berreskuratuzeko.



Jardueran parte hartutako emakume taldea, Santa Maria de la Hozeko santutxoaren aurrean. E. GONZALEZ

Ahalduntze Eskolak antolatutako bidaiak kulturala egin zuten asteburuan, Burgosera

Genero ikuspegiarekin egindako irteera izan zen, 'Lurraldearen zaindariak' izenpean

Estibalitz Gonzalez

Ermuko Emakumearen Etxeak antolatuta eta Itziar Aloria Jarautak gidatuta, larunbatean autobus bete emakume joan zen Burgosko Merinaldeetara; zehazki, Oña, Tobera eta Frias herrietara, hango emakume noble zein xumeen ekarpena gertutik ezagutzeko.

Lurraldearen zaindariak izenburuko jardueraren helburua zen lurralde hura zaindu eta gorpuztu zuten emakumeen arrastoari balioa ematea; irteera osatzeko, Oñako San Salvador monasterioa, Toberako ur-jauziak eta Friasko erdigunea bisitatu zituzten.

Unibertsitateko irakasle eta ondare gaitetako dibulgatzaile Itziar Aloria Jarautak bere komentario eta zertzelada historiko eta kulturalekin apaindu zuen bisita. Emakume nobleen botere eta eraginez hitz egin zuen, baina baita nolabait bigarren mailan isilean geratu diren beste emakume horiez, eguneroko bizitzaren askotari-ko esparruak antolatzen eta gobernatzen zituztenak: esaterako, urak berebiziko garrantzia duen zona hartan, emakumeen izen propioak azaltzen dira uraren banaketaren kudeaketan, urari paso ematearen edo moztearen arduradun. Andrazkoak

ziren ere etxeetara ura garraiatzen zutenak, garbitzaileak, tindatzaileak... uraren ziklo guztien jakitun. Eremu hartara mugatu barik ere, han-hemenka egon ziren errotariak, landareen propietateen ezaguera zuten sendatzaileak, lihoaren zikloa behatzen zuten jostunak... Izan ziren ere familia eta herentzia arazoetan bitartekari eta kontseilari lanak egin zituztenak, elizen eta ermiten zaintza- eta mantentze-lanen kargu serora izendatutakoak, eta udal-kontzejuren baten eskribau lanak egin zuenik ere egon zen. Bizitzara ekartzen laguntzeko ia herri bakoitzak bere emagina zuen, eta, heriotza osterako prestatzeko, ez bat eta bi andre beztitzaileak.

"Emakumeek ez zuten dirutan kobratzen horrelako lanak egitea, baina opariak eta ofrendak jasotzen zituzten", esan zuen Aloriak. Bisitan zehar behin baino gehiagotan azpimarratu zuen moduan, "ekonomia ikusezina zen eurena, balioa kendu zaiona mendez mende, baina ekonomia, azken finean". Gizonak gerretara joanda, sarritan alargun, hauxe galdetu zuen Aloriak: "Zer egingo zuketen norbait egunerokotasuneko arlo horietaz guztiez arduratu izan ez balitz?".



Friasko auzoan ibiltari. E.G.



Toberako ur-jauzietan gora. E.G.



Kaltxango AEKko ikasleak, mintzodromoan. ARAITZ BARRUETABEÑA

'Korrikaren '12. eguna' ekimenaren barruan, mintzodromoa eguaztenean

Kaltxango AEK euskaltegian egingo dute, eta ermuarrak zein mallabitarrak deitu dituzte parte hartzera

Ander Gomez

24. Korrikak utzitako "sentsazio indartsuei helduta" eta "Pizkunderako txinparta izan dadin", *Korrikaren 12. eguna* ekimena sortu du AEK-k, lasterketaren ostean euskararen normalizazioan aurrerapausoak ematen jarraitzeko helburuarekin.

Apirilean doako eskolak eman zituzten Euskal Herri osoko 100 euskaltegitan -tar-tean, Kal-

txangon-; eta maiatzerako, 65 mintzodromo antolatu dituzte. Horietako bat Ermuan izango da, maiatzaren 21ean, 19:00etan, euskaltegian bertan.

Kaltxango AEK-k euskararen egoeraren inguruko kezka partekatzen duten ermuar eta mallabitar guztiak gonbidatu ditu parte hartzera. Interesa dutenek kaltxango@ae.eus helbidera idatzita eman dezakete izena.

Emakume mendizaleek Bizkai osoko 100 tontor hartuko dituzte bihar

12:00etan elkartuko dira gailurretan. Ermuarrak Urko mendia igotzera deituta daude; mallabitarrak, Oiz

A.G.

Bizkaiko Mendizale Federazioak *Emakumeak gailurretan* ekimena antolatu du biharko, maiatzak 16. Hala, Bizkaiko tontor nagusiak emakume mendizalez beteiko dira, ekimenaren leloak dioen moduan, *Gorbeiatik Pagasarri-raino, Anbototik Koltzar-raino*. Antolatzaileek azpimarratu dute ez dela adin edo esperientzia kontua: "Emakumeen presentzia ikusaraztea eta mendietan duten lekua aldarrikatzea da helburua".

Parte-hartzaileek euren herri-tik gertuko Bizkaiko mendi bat aukeratu beharko dute eta, guxtienez, bost emakumeko taldeetan igo tontorrera. Eguerdi-

ko hamabietan tontorretan elkartu eta unea sare sozialetan zabaltzera animatu dituzte, argazki zein bideo bidez.

Izen-ematea zabaldu zuten, parte hartzeko konpromisoa bermatzeko. Euro bateko kostu sinbolikoa zuen, eta trukean buff bat jasoko dute oroigarri. Federazioak BARRENari jakinarazi dionez, 1.950 emakumek eman dute izena; horietatik, hamazazpi Oiz mendia igoko dira, eta bederatzi, Urkora. Hala ere, egunean bertan, izen-emate ofizialez aparteko parte-hartzea haztea espero dute. Artarrai Mendi Taldeak 10:30ean Orbe Kardinala plazan elkartzera deitu ditu ermuarrak.

Kultur Hamabostaldia 'Kultur Hilabete' bihurtu dute Udalak eta Jai Batzordeak

Maiatzeko bigarren hamabostaldia eta ekaineko lehena hartuko ditu

Ander Gomez

Aurten, Mallabiko Jai Batzordeak eta Udalak hilabete osora luzatu dute uda aurretiko ohiko kultur egitaraua. Baina ez dituzte ekintzak sakabanatu; hala, ekainaren 12ra bitartean askotariko ekintzaz beteko dute herria: musika, kirola, hizkuntza, gastronomia eta ondarearen inguruko jarduerak ez dira faltako.

Hilaren 17an hasiko da, domekan, Mallabia I. pilotalekuan jokatu diren Bizkaiko Eskolarteko 43. gomazko paletako finalekin. Maiatzaren 20an, martitzena, *Menditour* dokumentala eta beste lau film labur proiektatu dituzte Kontzejuzarrean: Jon Mendizabalen *Aldabide* (espeleologia), Corinna Halloranen *Dear superhero* (eskia), Nagore Eceizarena *Izarren zaunka* (eskalada) eta Leo Hoornen *Trango* (eskia).

Datorren zapatuan, hilaren 23an, urteko hitzordu handienetako bat biziko du herriak: 7 Pago mendi lasterketa izango da, eta egun osoko egitaraua prestatu dute: musika, jaki eta edari dastaketa, umeentzako jolasak... Gainera, Imanol Epeldek *Zerbait sartu zait begian* ikuskizuna egingo du.

Maiatzaren 29an, barikua, XIV. Mallabitarrok Egina egingo dute Berbalagunek. Zapatu goizean, Mallabia Cup jokatu dute, futbol eta saskibaloitxo txapelketekin; eta arratsaldean, Udaberriko Kontzertua emango du Mendibil abesbatzak, Baionako Buhaminak talde gonbidatuarekin batera.

Ekainaren 4tik aurrera –eguna– ekintzaz beteriko aste bukaera egingo da. Hasteko, goitentsioko lineen ugaritzaren inguruko hitzaldia antolatu du Uda-



Ainhoa Mugarza zinegotzia eta Igor Agirre alkatea, egitarauarekin. M.U.

lak, Kontzejuzarrean; eta Biharko Izarrak txapelketako gizonen kategoriatik finaleraino irabazteko jokatu dituzte pilotalekuan. Barikuan, frontenis txapelketa mistoa jokatu dute herritarrek, Ander Martinen

omenez antolatutako lehena. Zapatu arratsaldean, briska eta mus txapelketak jokatu dituzte Probalekuan; eta, ondoren, herri-kirol erakustaldia eta umeentzako ekintzak egongo dira, Txondor Herri-Kirol taldearen eskutik. Domeka goizean, nekazaritza eta artisautza azoka egongo da plazan; eguerdian, dantza erakustaldia egingo du Gazte Alai taldeak; eta arratsaldean, umeentzako *Jira Bira* disko-festa egongo da parkean. Astelehenerako, *Indartu zure hezur eta muskuluak* hitzaldia antolatu dute jubilatuek, eta Maite Gonzalez osteopata arituko da hizlari. Kontzejuzarrean izango da, eta, ondoren, txokolate beroa izango dute Jubiletxean.

Ekainaren 12an, barikua, Biharko Izarrak txapelketarekin batera –gizonen binakako finaleraino eta emakumezkoen lau eta erdikoarekin– bukatuko da Mallabiko lehen Kultur Hilabetea.

Liburutegikoek gogorazari dute hilabete osoan –maiatzaren 15etik ekainaren 15era– LGTBI-QA+ interesgunea izango dela, genero- eta sexu-aniztasunari buruzko liburu-gomendioekin.

Sormena eta askotariko teknika artistikoak lantzeko tailerrak izango dituzte maiatzeko Zapatueroan

A.G.

27 lagunek parte hartzen dihardute Zapatuero aisialdi-egitasmoan, 2016-2022 urteetan jaiotako hemeretzi umek eta 2010-2015 arteko zortzi gaztetxok. Kanpoko enpresa batek kudeatzen duen arren, Satxibu Aisialdi Taldeko egiraleekin egiten dituzte ekintza guztiak. Otsailean hasi ziren, eta, urte bukaerara arte, irteerak, ikastaroak eta kirol- eta kultura-ekintzak izango dituzte hileror.

Lehen ekintzak txokobolak eta tote-poltzak egiteko tailerrak izan ziren. Martxoan, berdintasunaren gaiari helduta, Frida Kahloren bizitza ezagutu, eta paparreko orratz eta giltzako pertsonalizatuak egin zituzten. Aurrekoan, irteerak egin zituzten: umeak Basondora, animaliak eta natura gertutik ezagutzeko txangoan; eta nagusiak Bilboko Jump Yard ohe-elastiko eta



Martxoan Zapatueroan haurrek egindako giltzatak. MAREN AGIRRE

eskalada instalazioetan izan ziren, mugimendua, koordinazioa eta oreka lantzeko kirol-esperientzian. Laugarren hitzordu honetan bi tailer izango dituzte, Mallabian bertan.

Katilu-margoketa eta diru-zorro birziklatuen ikastaroak bihar

Maiatzaren 16an, katiluak diseinatu eta margotzeko tailerra izango du umeen taldeak. Kolorretako margo eta pintzelekin, hainbat teknika irakatsiko

dizkiete, eta euren irudimena askatzera bultzatu dituzte. Kontzejuzarrean izango da, 16:00etatik 19:00etara.

Gaztetxoek, berriz, diru-zorro birziklatuen tailerlean parte hartuko dute. Normalean baztertu egiten diren materialei “bigarren bizitza” eman diezaiekete erakutsiko diete, eta nork bere diseinu propioa sortuko du. Tailerra ordu berean izango da, 16:00etatik 19:00etara, Zurrutokian.

Superigandetako hamaika umek jokatu dute xake txapelketa



Liher Raya eta Koldo Unanue. MFT

Domekan zortzi ume egon ziren Superigandeko goizeko jolasetan, eta arratsaldean hamazazpi ume elkartu ziren Kontzejuzarreko zinemaren, Bob Esponjaren *Abentura pirata* filma ikusteko. Ostean, AD Mallabia FTk antolatutako xake txapelketa jokatu zuten. Liher Raya izan zen garaile, baina bigarrenaren zati ere saria zegoen, eta Koldo Unanue jaso zuen garaikurra.

EZ ESAN!

MALLABIARI BURUZKO GALDERA-ERANTZUNEN JOKOA
MAIATZA



1. Nola du izena Gereako Barrenengoa baserrian jaio zen bertsolariak?
a) Beñat Ugartetxea
b) Jose Luis Basterretxea

2. Nola deitzen da Iratxe Uribelarreak eta Igone Amestik (besteak beste) osatzen duten taldeak?
a) Urretxindorrek
b) 4kote

3. Ze urtetan inauguratu zen Jubilatuen Etxea?
a) 1995
b) 1987

4. Zenbat alkate izan ditu Mallabiak demokrazia ezarri zenez geroztik?
a) 6
b) 7

5. EAJko diputatua, aita valentziarra eta ama Mallabikoa zena:
a) Imanol Puig
b) Andoni Monforte

Apirilko erantzunak:

1. BI-2301
2. Zengotita
3. Urtia
4. Lezama
5. Biritxinaga (Areitio)

Irabazlea:
Maribi Carrillo




Etxebizitza Bulegoa "harrera ona" izaten ari da, eta uste dute eskaria handitu egingo dela

Orain arte, batez ere, etxebizitzetako obrekin lotutako kontsultak jaso dituzte

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Otsailaren amaieran, Etxebizitza Bulegoa zerbitzu ibiltaria abiarazi zuen herriz herri Debegesa Debabarreneko Garapen Agentziak, tokian tokiko udalekin elkarlanean. Soraluzearen kasuan, eguaztenero izaten da bertaratzeko aukera, 08:15etik 16:00etara bitartean, Kalebarreneko bulegoan. Bertan, Leire Azpiazu Debegesako Hiri-gintza eta Birgaikuntza teknikaria arduratzen da aholkularitza-lanak egiteaz eta herritarren kontsultak argitzeaz.



Leire Azpiazu teknikaria, Etxebizitza Bulegoan, eguaztenean. U.M.Z.

Eskaera handitzen

Bada, Azpiazuk esan duenez, orain arte, zerbitzuak "harrera ona" izan du herrian, eta, aurreikuspena da etorkizunean gora egingo duela kontsulta kopuruak. Izan ere, bulegoan zerbitzu berria ematen hasi dira hilabeteotan: "Energiari eta alokairuari buruzko informazioa ematen dugu". Eta, gaineratu duenez, "plazaratu berri den 55/2026 Dekretuak, etxebizitzaren arloko erregelamendu-xedapenen presazko aldaketari buruzkoak, malgutu egin ditu etxebizitza alokairuan eskuratzeko diru-sa-

rreren mugak. Horrek eragin positiboa izango duela uste dugu, jende gehiagok izango baitu abian dauden dirulaguntzak eskuratzeko aukera".

Lau funtzio nagusi

Oro har, Etxebizitza Bulegoak lau zeregin nagusi ditu.

Batetik, informazioa, orientazioa eta laguntza ematen du, etxebizitzak eta eraikinak zahar-berritzeko Etxebidek eskaintzen dituen laguntzei begira, eta beste laguntza osagarri batzuei buruzko informazioa ere bai.

Bestetik, etxebizitza hutsen alokairua bultzatzeko erakundeek dituzten programak ezagutarazi eta zabaltzen ditu.

Hirugarrenik, informazioa eta aholkularitza ematen du gizarte-bonu elektrikoari eta termikoari dagokionez, eta baita ere energia-horniduren –elektrizitatea, gasa...– fakturak eta tarifak optimizatzeari buruzkoa, energia-gastua murrizteko fakturak errazago uler daitezten.

Azkenik, energia berriztagarrien instalazioen eta birgaitze jasagarriko jardueren inguruan

informatzeko eta sentsibilizatzeko ardura ere badu, etxebizitza-eredu eraginkorragoa eta jasagarriagoa sustatzeko.

Jabea, obrei buruz galdezka

Etxebizitza Bulegoko teknikariak esplikatu duenez, Soraluze bulegora joan diren orain arteko erabiltzaileen profil nagusia da "etxebizitza baten jabe den eta etxean edo komunitatean obrak egin nahi dituen pertsonarena. Batez ere, birgaitzearekin zuzenean lotutako kontsultak artatzen ditugu, bereziki Etxebideko lehen lerroari –partikularrei zuzendua– eta bigarren lerroari –komunitateei zuzenduta– dagozkienak". Ildo horretan, Azpiazuk gogora ekarri nahi izan du Etxebideren dirulaguntza horietakoren bat jaso nahi duenak obrak egin aurretik eskatu behar dituela, eta ez obrak egin eta gero, bigarren kasuetan ez baitute laguntasunik ematen.

Bestalde, kontsultekin segituz, teknikariak jakinarazi du etxebizitzaren alokairuarekin lotutako "kontsultaren bat edo beste" ere jaso dutela; nagusiki, alokairu eskatzaileenak".

Txanda alde aurretik

Azkenik, Hiri-gintza teknikariak azpimarratu du "zerbitzuaren kalitatea bermatzeko aldera" hobe dela bulegora bertaratu aurretik txanda hartzea. Honako zenbaki honetara deituta har daiteke: 675 87 38 53.

Irailaren 7ra arte bidal daitezke herriko egutegirako argazkiak

U.M.Z. SORALUZE

Zabalik dago 2027ko herriko egutegirako argazkiak bidaltzeko epea. Edozein herritarrek bidal ditzake; asko jota, bakoitzak bi. Soraluzeko une edo momenturen bati lotutako argazkia izan beharko du –paisaiak, kaleak, eraikinak, jaiak, kirola, herri ekimenak...–, Soraluzean ateratakoa. Irailaren

7ra arte bidal daitezke argazkiak, honako helbide honetara: kontrargiAK@gmail.com.

Gero, jasotako artetik hamar aukeratuko dituzte Kontrargi Argazki Kolektiboko kideek eta Soraluzeko Udaleko ordezkariak. Argazki bana datorren urteko egutegiaren azala eta kontrazala osatzeko erabiliko dute eta beste zortziak,

berriz, hilabete banari lotuta agertuko dira egutegian.

Udazkenean emango dute aukeratutako argazkien berri. Gero, Gaztañerre Azoka aurretik ipiniko dute salgai egutegia, komertzioetan. Iaz ere arrakasta handia izan zuen: 550 saldu ziren.

Protagonistak, herritarrenak

Badira urte batzuk Kontrargi Argazki Kolektiboak eta Soraluzeko Udalak herriko egutegia kaleratzen dutela elkarlanean. Urteotan, protagonis-



lazko hainbat argazkilari. UDALA

ta izan dira herritarrek ateratako argazkiak.

Maiatzaren 22an beharrean, hilaren 29an dira odol ateratzeak

Soraluzeko Odol Emaileen Elkarteak ohartarazi du aldatu egin dutela maiatzaren egin behar duten odol ateratzeen eguna. Esandakoaren arabera, berez, maiatzaren 22an egin behar zuten hurrengo ateratzea, baina Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteak aldatu egin du eguna, eta maiatzaren 29an etorriko dira Soraluze. Hori horrela, data berri hori da kontuan hartu beharrekoa odola ematera joateko txandak hartzerakoan. Horiak hartu ahalko dira maiatzaren 27an eta 28an *Gotatanta.eus* atarian eta 29an telefonoz.

Herriko elkarteak kalean ere jarriko ditu kartelak, data aldaketak jakinarazteko.

Ekainean eta uztailean okindegia itxita izango da arratsalde

Ekainetik aurrera, Mendizabal Okindegiak udako ordutegia izango du eta itxita izango da arratsalde. Edozein modutan, Mendizabalaren okia arratsalde ere erosteko aukera izango da, Kooperatiban, Autoservicio Amparoen eta Criado fruta-dendan. Goizeko ordutegiari dagokionez, orain artekoa izango du, astelehenetik zapatara, 08:00etatik 13:30era.

LGTBIQ+ fobiaren kontrako elkarretaratzea

Domekan, maiatzaren 17an, LGTBIQ+ Fobiaren Aurkako Nazioarteko Eguna da. Egun horren bueltan, Soraluzeko Udaleko Berdintasun batzordeak elkarretaratzera deitu du, sexu aniztasuna aldarrikatu eta fobia horrekiko kontrakotasuna plazaratzeko. Etzi izango da, domekan, 13:00etan, Plaza Barrixan.

KM design
Kira Muntatzen
943 74 99 85
www.kmdesign.es
Pol. Amilago 5 BERGARA

Disenñu eta Fabrikazio lanak
Sukedeak
Horma-amastrak
Logelak
Zonak
Ateak...

Arotzeria lanak oro har
Instalazioak

aras
zehaztasun handiko piezak
Mendiola Industrialdea 19
Tel. 943 75 17 36 - 943 75 18 03
Fax 943 75 22 95
aras@tomilleraaras.com
www.tomilleraaras.com

ODRI
ATEAK ETA LEIHOAK
ALUMINIO ETA PVC AROZTEGIA
T. 662 234 609
Eguzi Etxeko Kalea 2 - 20990 SORALUZE
e-mail: odrileihoak@gmail.com

Mota guztietako leihoen, pertsiaren, ateak, berandilak, salmanta eta korporleta

Aspigo Fabrika
Terraza, kontzertuak, dardoak...
Ostiraletan pintxopotea
Gipuzkoa etorbidea 1

"Soraluzen baloratuta sentitu gara eta gogotsu, eta animoso gatoz lanera"

ANDREA ARANGUIZ SORALUZeko EXGA SALTOKIKO ARDURADUNA

U.M.Z. SORALUZE

Andrea Aranguiz (Bolivia, 1989) da EXGAk Soraluzen zabaldu duen etxetresna elektrikoaren dendararen arduradun. Martxoaren 27an zabaldu zuten. Aranguizek esan dutenez, oso pozik daude. Elkarrizketa egiterakoan, adibidez, hiru bider geratu behar izan da grabagailua, dendara sartu diren bezeroengatik.

Zer moduz doaz denda berriaren lehen asteak?

Oso-oso ondo; egia esan, oso gustura ari gara lanean. Soraluzeko jendeak oso ondo hartu gaitu, adeitsu; zorionak ere eman dizkigute. Baloratuta sentitu gara, eta gogotsu eta animoso gatoz lanera. Bergararik geroz. Han saltokia dugu, eta handitu egin nahi genuen, mugitu, geldi ez geratzeko. Etxetresna elektrikoak ditugu, baina, berez, zaharberritzeetatik geroz.

Zaharberritzeetatik?

Bai. Denetik egiten dugu: zaharberritzeak, aurrekontuak, etxetresnak... Bezero bakoitzari egokituta, aurrekontu erosoak. **Nola hasi zineten zaharberritzeekin?** EXGA izena bi pertsonarengatik da, bata Extremadurakoa (EX) eta bestea Galiziakoa (GA). Aseguruetarako lan egiten zuten, eta, lanean ezagutu zuten elkar. Etorkizunera begira, antzerako ideiak zituzten, izaera ere antzerakoa, langileak... eta elkarrekin lanean hastea erabaki zuten. 2013tik gabiltza. Iturgintza, igeltserotza, arotzeria... gremio guztiak egiten ditugu.



Andrea Aranguiz, dendan, astelehenean.

Eta Bergaran noiztik duzue saltokia?

Orain dela lau urtetik. Zaharberritzeak egiten genituela, Bergaran bizitza osoan denda zuten batzuek erretiratzeko asmoa zuten; eurekin berba egin genuen, *aukeratuak* izan ginen [Barre], eta denda zabaldu genuen. Denda asko ixten ari dira, eta ez dakizu zelan funtzionatu duen, baina ez baduzu probatzen... Probatu egin behar da. Oraingoan, gu ondo goaz.

Egia esan, arreta ematen du: herri handietan ere dendak ixten ari dira, eta zuek Soraluzera etorri zarete. Zelan erabaki zenuten hori?

Soraluzeko lagun bat dugu erretiratzera doana; hark animatu gintuen, eta negozioa hartu genion. Nire senarra argiketaria eta iturgina da. Inguruak begiratzen ibili ginen. Bergaran, adibidez, herriaren irteeran denetik dago. Ikusi genuen hemen

behar zela, Bergararekiko duen gertutasuna ere baloratu genuen, eta probatzea erabaki genuen. Esandako moduan, oso ondo ari gara lanean eta benetan gustura gaude, oso adeitsuak zarete.

Ezagutzen zenuten Soraluze?

Bai; ni jaietan egonda nago. Eta nire herrikide-lagun bat ere hemen bizi da aspaldi.

Orain arte, zer eskatu da gehien Soraluzen?

Gama zuriko etxetresna elektrikoak: garbigailuak, ontzi-garbigailuak... eta baita etxetresna elektrikoak ere.

Konponketak ere egiten dituzue...

Bai, aparailu txikienenak, telebistenak... eta marka guztietako zerbitzu teknikoekin harremanetan jartzen laguntzen dugu. Adibidez, garbigailuak konpontzeko; hau da, bitartekari-lanak egiten ditugu, ezer kobratu barik.

Besterik nahi baduzu esan...

Espero dugu lanean segitzea eta hemen luzaroan egotea. Gure helburua da handitzen jarraitzea, lan egitea eta lan ona egiten segitzea; jende serioa gara eta uste dut lan egiten duzunean eta ondo lan egiten duzunean gauzak ondo irteten direla. Bestalde, nahiko gure jendeak sentitzea entzuten diogula; guk lagundu egingo diogu behar duen hori erostean, aholkularitza emango diogu. Eta eskerririk asko momentu honengatik; egiten dudana lehen elkarrizketa da eta harro samar sentitzen naiz [Barre].



Miren Agur Meabe idazlea, Herri Antzokian, eguaztenean. U.M.Z.

Miren Agur Meabe, Iñigo Alberdi, irteerak eta beste JendartEkin-en

Bilbao Orkestra Sinfonikoa entzuteko eta Abadiako Gaztelua bisitatzeko irteerak egiten borobilduko dute ikasturtea

U.M.Z. SORALUZE

Udako oporrak hartu aurretik, azken txanparako egitarau mardula prestatu dute 55 urtetik gorakoei zuzendutako JendartEkin egitasmoaren baitan.

Aste honetan bertan, eguaztenean, institutuarekin elkarlanean, Miren Agur Meabe idazle entzutetsua Herri Antzokian izan zen, eta hitzaldia egin zien DBHko laugarren mailakoei, *Urtebete itsasargian* bere liburuari eta idazketa prozesuari buruz, besteak beste.

Bi irteera

Horrez aparte, beste hiru hitzordu izango dituzte uztaila baino lehen. Maiatzaren 27an, liburuen online katalogoa erabiltzeko ikastaroa landuko dute, liburutegiarekin elkarlanean. Eta ekainerako bi irteera iragarri dituzte. Batetik, ekainaren 4an,

Bilbao Orkestra Sinfonikoa ikustera joango dira, zehazki, *Pacho Paquitoren musika jotzen* emanaldia. Iñigo Alberdi Amasorrain (Soraluze 1973) Bilbao Orkestra Sinfonikoko zuzendari nagusiarekin otsailen egindako hitzaldiari segida emango diote irteera horrekin.

Azkenik, aurten ere Hendaia-ko Abadia Gaztelua bisitatzera joango dira ekainaren amaieran.

Izena emateko aukera

Soraluzeko Udalak jakinarazi duenez, 2025-2026ko ikasturtean 25 pertsona ari dira iraunkorki JendartEkin proiektuan parte hartzen. Hala ere, izen-emateak irekita jarraitzen duela esan dute; hala, ikasturte osoko kuota 50 eurokoa bada ere, bi hilabete hauetarako izena eman nahi duenari egokitu egingo diote zenbatekoa.

 **ELIZPE**
HORTZ KLINIKA
Tel. 943 75 25 67

Txoko
Eguneko menuak, plater konbinatuak, hamburgenak, ostarleteak, raziak, pizza, gaztaria...
Enkarguak egiten dira
Tel. 943 75 17 99

TERXYPUR®



1-Stretch ehuna / 2-Polester zuntza
3-Soja natural ez-transgenikoaren biskoelastika
4-Polesterra / 5-Ehngintza TB
6-Soja natural ez-transgenikoaren biskoelastika
7-Soja natural ez-transgenikoaren Terplus nukleoa
8-Plata banda / 9-Ehngintza TB / 10-Polesterra / 11-Polester zuntza / 12-3d ehun iristagaila

Moldagarria, transpiragarria, termoaldakorra, ergonomikoa, presioaren aurkakoa, alergiaren aurkakoa eta akaroen aurkakoa

San Roko kalea, 20 - ELGOIBAR - 943 744 457 / 685 756 978
www.textillagunak.com

 **Elektrizitatea**
Iturgintza
Igeltseritza
Pintura
EXGA S.L.
679 623 584
Soraluze

SORALUZE MOTOR
Mendiola ind. 13
Soraluze
476 556 817 - 943 75 21 38



Iokin Arrillaga, Gorka Zubiaurre eta Ina Larrañaga. U.M.Z.

Bihar, zapatua, "helburua beteta" zelairatuko da Sora, umeek pasilloa eginda

Sorako kamisetarekin doazenei freskagarriak eta litxarrerriak emango dizkiete

Ubane Madera Zangitu SORALUZE Bihar, zapatua, Sorako Erregional Mailako taldeak 2025-2026ko denboraldiko azken-aurreko partidua jokatu du. Ezoziko Futbol Zelaian da hitzordua, Ikasberri taldearen kontra, eta, garrantzi berezia dauka partidua horrek, hiru arrazoirengatik.

Batetik, Sorako talde nagusiak etxean jokatu duen denboraldiko azken lehia izango delako.

Bestetik, ekipoa Gorengo Mailara igotzeko helburua lortu berri duela zelairatuko delako.

Eta hirugarrenik, maila-igoera ziurtatuta izan arren, aurtengo denboraldi bikaina borobiltzeko kopa ere irabazi nahi dutelako Sorakoek; eta, horretarako, biharko partidua irabaztea ezinbestekoa dute. Izan ere, bihar aurkari izango duen Azpitiko Ikasberri taldea bigarren doa sailkapenean. Eta nahiz eta Sora lider izan, biek ala biek 30 puntu dituzte.

Litxarrerriak opari

Osagai horiek guztiak kontuan hartuta, eta herritarrek eta, batez ere, zale gazteak taldeari bultzada ematera anima daitezten, Soraluze Futbol Taldeak litxa-

rrieriak eta freskagarri bana emango dizkie partidura Soraren kamisetarekin joaten diren ume guztiei.

Bihar 16:30ean hasiko da norgehiagoka, eta umeek bi taldeei egingo diete zelairatzeko pasilloa; izan ere, Sorak bai, baina Ikasberrik berak ere lortu du datoren denboraldiko maila-igoera ziurtatzea.

Denboraldi bikaina

Soraren Erregional Mailako taldeak egin duen denboraldia-ri dagokionez, berriz, zuzendaritzak "balorazio oso ona" egin du. Azpimarratu dute Gorengo Mailara itzultzeko "helburua beteta" duela ekipoak, eta, gainera, "urte oso ona" egin duela.

Orain, urte osoan aurrean egon ondoren, egindakoa borobiltzeko, onena igoera faseko kopa ere lortzea litzatekeela uste dute.

Maila igoera lortu arren, biharko partidua irabazi egin nahi dute, kopa ekartzeko

"Txapeldun geratzen bagara, hobeto" diote.

Edozein modutan, pozik dira taldearekin, eta uste dute aurten lortutako emaitzaren gakoetako bat izan dela etxeko jokalarien eta teknikarrien alde egindako apustua. "Konpromisoa izan dute, eta igarri egin da; entrenatzera denak etorri dira, jokoan ere igarri da...", diote zuzendaritzakoek.

Baieztape hori berrestez batera, Iokin Arrillaga Erregionalen entrenatzaileak Sorako gainerako taldeen eta entrenatzaileen prestutasuna eta jarraia nabarmendu nahi izan ditu: "Oso eskertuta gaude. Beste taldeengatik eta entrenatzaileengatik izan ez balitz, ez genukeen lortuko. Adibidez, gazteen mailako hamar jokalarik-edo gurekin jokatu dute. Gurekin entrenatzera ere etorri dira askotan. Egia da eurak ere pozik etorri direla, konfiantza eman zaielako, baina ahalegina ere egin behar izan dute; adibidez, askotan, bi partidua jokatu behar izan dituzte asteburuan. Eta gazteek, aldi berean, kadeteen beharra izan dute. Horri guztiorri balioa eman behar zaio".

"Oso gustura" boxeo jaialdian



EGOITZ UNAMUNO

Zapatuan, Soraluze boxeoaren erakusleihu bilakatu zen. 400 lagun pasa elkartu ziren Arane kiroldegian Soraboxen eskutik egin zen boxeo jaialdia ikusteko, hamahiru borrokaldi; sei, Euskadiko finalerdiak. Ttopaketaren antolatzaile Ixa Rodriguezek esan duenez, "oso ondo" irten zen: "Jende mordoia egon zen; ez beteta, baina jende asko. Borrokak oso onak eta parekatuak izan ziren, eta, oro har, oso gustura nago".

Hari-instrumentuen magia, plazan



EGOITZ UNAMUNO

Hari-instrumentuei balioa eman, musikarrien, musikagileen eta musikazaleen arteko harremanak sendotu, eta sarea sortu eta instrumentu horiekin musika herrikoia eta dantzarako lantzeko eta partekatzeko SoraFolk topaketaren hirugarren aldia egin zuten zapatuan: goizean, eskolan landu zituzten piezak elkarrekin; eta arratsaldean, kontzertua eman zuten Plaza Barrixan, eta hainbat ikusle dantzan ere jarri ziren.

Pintura ikasleen artelanak ikusgai erakusketa aretoan

Aste honetan zabaldu dute Krabelin pintura eskolako 40 ikasle ingururen lanekin osatutako erakusketa, Araneko aretoan. Paula Pinillaren ikasleek egindako artelanak dira, denetariakoak: errealistak, abstraktuak, paisajistak, marrazki bizardunak, testurak konbinatzen dituztenak... Maiatzaren 23ra arte ikusi ahal izango dira.



Herritar batzuk, artelanei begira. U.M.Z.

Berritasunekin eta beti bezain umoretsu dator Triatoloia; ekainaren 6an izango da

Zirkuitu-aldaketa, sari-banaketa eta txaranga izango ditu berritasun

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Seigarren urtez, Triatoloia egingo dute Soraluzeke 48 gaztek; aurtan bigarren, herrian bertan, ekainaren 6an.

Triatloi klasikoaren hiru kirol-diziplinak egin beharko dituzte Triatoloian: igerian, bizikletan eta korrika. Baina, triatloi klasikoan ez bezala, Soraluzekean zozketaz erabakitzen da partaideek zein kirol egin eta zein taldetan lehiatuko diren.

Hori dagoeneko eginda dute gazteek; taldeak osatuta ere bai, sei laguneko zortzi talde –organigramak, Bolia eta Edurtza tabernetan–. Partaide guztiak dira kirolzaleak, gehienak mutilak; hiru neska bakarrik daude. Eta partaide gehienak 30 urtetik beherakoak dira. Adin-tarteari dagokionez, gazteenak 22 urte ditu eta zaharrenak, 49 urte egin berriak.



Goian, Recio, Oregi eta Gil; eta behean, Caballero, Oregi eta Arrillaga. U.M.Z.

Zubian hasi eta bukatu

Zirkuitua ere zehaztuta dute antolatzaileek. Zortzinako bi txandatan egingo dute. Zubi Nagusian hasiko da, 11:30ean. Lehen partaideek igerilekura joan eta han 300 metro egin

beharko dituzte igerian; kale bakoitzean bi lagunek. Iaz, 6-7 minutuan egin zuten.

Hura bukatutakoan, igerilariet txanda emango diete zubian izango diren txirrindulariei. Haiek Etxaburuetatik Estaziño-

ra eta Oleatik Osintxura joan beharko dute, Soraluzeke zubi berriaren buelta hartu eta Soraluzeke Zubi Nagusira bueltatuko dira. 12-20 bat minutu kalkulatuko dituzte.

Azkenik, korrikalariet hartuko dute txanda. Kalebarrenen –Gabolatseko zubia–, kiroldegiko pasearen eta zubiaren arteko zirkuituari bi buelta eman, handik Santa Anara egin, Olearaino segi, buelta hartu eta Zubi Nagusian bukatuko dute. 10-15 minutu kalkulatuko dituzte.

Sari-banaketa

Iaz, zubian egundoko giroa sortu zen Triatoloiko korrikalariet iritsieran, zain zituztelako lagun guztiak gogotik animatzen. Aurtan, amaiera-festa hori luzatu egingo da, berritasun moduan sari-banaketa egingo baitute kirol-probak bukatu eta berehala. Zenbat eta zer sari, berriz, "sorpresa" da.

Eta kirol-festa bukatutakoan, kuadrilla-festa hasiko dute.

Bazkaria, txaranga, balkoia

Lehenengo, elkarrekin bazkalduko dute, Batzokian. Bazkalostean, berriz, lagun dituzten

Latuna Bando txarangarekin segituko dute festa. Eta, noski, iluntzean, udaletxe bakoitza igoko dira Triatoloiko garaileak, behean dauden gainerako lagunek umoretsu hauspotuta.

Eguna goizeko ordu txikietan borobiltzeko asmo sendoa dute. "Iaz nahikoa jende egon zen, eta herriak erantzun egin zuen. Tabernak, adibidez, goizaldeko seiak arte egon ziren zabalik, eta aurtan ere egon(goa) beharko dute; bestela, beste herri batera joan beharko dugu parandara; (kar-kar). Eta hurrengo urtean beste herri batean egingo dugu Triatoloia; (kar-kar)", esan dute.

Porra erakargarria

Bestalde, porra ere badakar Triatoloiak, erakargarri askoa, 370 euroko poltsa baitago iaztik, aurtan batuko denaz aparte. Bolian eta Edurtzan egin daiteke apustu.

Azkenik, antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete kartela egin duen Mikel Reciori, epaile-lanak egingo dituen Andoni Ariznabarretari eta kamerari izango den Aratz Olaizolari.

U.M.Z. SORALUZE

Soraluzeko dantza eskola berriko dantzari gazteak gogotsu dira ikasturte amaierarako prestatzen ari diren ikuskizuna jendaurrean taularatzeko.

Maiatzaren 29an izango da, 18:30ean, Araneke frontoian. Zazpi dantza eta agurra taularatzeko dituzte. 46 bat ume izango dira dantzari, 4 eta 15 urte artekoak.

Bost hilabete lanean

Ez dute aurreratu zein dantza taularatzeko dituzten, sorpresa izatea nahi baitute, baina denetarik dantzak prestatzen ari direla esan du euren irakasle Irene Vazquez Santos dantzariak (Eibar, 1999).

Xehetasunen arabera, Gabonak bukatu eta berehala hasi ziren ikuskizunerako dantzak prestatzen; beraz, bost hilabete lanaren emaitza taularatzeko dute bi aste barru.

Ordubete inguru iraungo du dantza-ikuskizunak eta ez da sarrerak erosteko aukerarik izango. "Ume bakoitzari launa sarrera banatuko diogu. Lehen urtea izanda, horrela egingo dugu; datorren urtean, berriz,



Dantza eskola berriari diharduten bi talde, astelehenean, kiroldegian. U.M.Z.

Ikasturte amaierako dantza-erakustaldia egingo dute maiatzaren 29an

Zazpi dantza eta agurra egingo dituzte 46 bat umek, Irene Vazquez Santosek gidatuta

auskalo zer", esplikatu du Vazquezek.

Astean hirutan

2025-2026ko ikasturtean sortu da Soraluzeke dantza garaikidearen eskola berria. Urte luzez,

dantza mota hori Soraluzeke irakasten ibili zen Biraka Dantzak iaz laga egin zuen, eta Irene Vazquez Santosek hartu zuen erreleboa. "Enteratu nintzen dantza-irakasle bila zebiltzala, eta harra sartu zitzaidan. Nik

Eibarko lagatzea erabakitu nuen; beharrez nabilen, denari ezin ondo utsita. Baina Soraluzekeoaz enteratu nintzeanean, animatu eta segitzea erabaki nuen. Gainera, pena ematen zidan Soraluzeke dantza

ikasteko aukera barik geldituko zirela jakiteak".

Orain, Soraluzeke bizi da Vazquez –aita ere soraluzekearra du– eta astean hiru egunetan ematen ditu dantza eskolak, kiroldegian. "Pozik" dago taldeekin, eta datorren urtean ere segi nahiko luke.

Eskarmentu handikoa

27 urte bakarrik dituen arren, dantzari zein irakasle ibilbide luzea egin du dagoeneko Vazquezek. 14 bat urtez Eibarren dantza ikasten ibili eta gero, Madrilen segitu zituen ikasketak, eta han dantzari ere izan zen. Balleta, dantza garaikidea, komertziala, klakea, jazz... denetik egin eta lantzen du.

Eibarren, berriz, dantza-irakasle izan da urte luzez, bertako dantza eskolan, eta orain, Soraluzekeko erronkari eutsi dio.

Kontatu duenez, batik bat, dantza garaikidea eta komertziala erakusten ditu. Vazquezek berak ere horixe du gustuko, garaikidea, "zailagoa delako. Gauza zailak lortzea gehiago gustatzen zait. Teknika gehiago du garaikideak, eta horregatik da zailagoa", esplikatu du.

Asteburu bete-betea Debarren Egunaren bueltan

Gaurtik igandera bitartean, Deba jai-giro betean murgilduko da. Lau eguneko egitarauaren baitan, kontzertuak, dantzak, erromeriak, lehiaketak, kalejirak, erraldoiak, herri kirolak eta entzierroak nabarmetzen dira, herritar guztien gozamenerako

Nerea Bedialauneta Alkorta

Heldu da maiatzeko hirugarren asteburua, eta, harekin batera, askorentzat urteko hitzordu kutunenetako bat: Debarren Eguna. Egun handia igandean, maiatzaren 17an, izango bada ere, jada martxan dago egitaraua.

Herenegun, maiatzaren 13an, abiatu zuten aurtengo programa, Euskal Herrian galtzeko arriskuan dauden bertako behi-arrakak hizpide dituen *Suharra* dokumentalaren proiektioarekin eta ondorengo solasaldiarekin.

Gainean dugun asteburuari begira, berriz, askotariko proposamenek hartuko dute protagonismoa. Gaur, maiatzak 15, LH4 eta DBH2 arteko ikasleei zuzendutako paella-lehiaketa egingo dute Luzaro ikastetxeke patioan, 18:30ean, eta 19:30ean, Kanean Kantuz taldeak girotuko ditu herriko kaleak, Musika Eskolatik abiatuko den saio ibiltariarekin. Eguna amaitzeko, Debako Musika Bandak kontzertua emango du elizako klausuroan, 22:00etan.

Biharkoa ere jardueraz beteta etorriko da. Goizean goizetik gauera arte iraungo duen programazioaren baitan, haurrei zuzendutako 33. margo lehiaketa egingo dute. Parte hartu nahi dutenek 09:30ean eman beharko dute izena, udaletxe azpian, eta sari-banaketa 17:00etan izango da, Kultur Elkartean.

Eguerdian, bestalde, bertsoa eta pilota uztartuko dituen ikuskizuna izango da, Aldats pilotalekuan. 12:00etan hasita, Iker Elizegi, Mikel Goñi, Julen Urruzola eta Iker Urmeneta pilotariak nor baino nor gehiago ariko dira kantxan, Beñat Gaztelumendi eta Eli Pagola bertsolariek lagunduta. 13:00etan, aldiz, kaleak musikaz beteko dira Debako eta



Gure Kaiko dantzariak, iaz, aureskua dantzatzen Foruen Plazan. NEREA BEDIALAUNETA ALKORTA

Azkoitiko gaiteroen eta banda gaztearen doinuekin.

Jolasak eta itsaski-jana

Zuhatza Debako Euskaltzaleen Mugimenduaren baitan sortutako Adaxka gazte taldeak ere bere ekarpena egin nahi izan dio egitarauari, gazteei zuzendutako jarduera berezi eta parte-hartzaile batekin. Plaza Zaharrean hainbat jolas eta txapelketa antolatu dituzte, parte hartzeko dinamika irekian. Txapel jaurtiketa (13:00), soka-saltoa (13:30), Kahoot galdera-erantzunen lehiaketa (14:00) eta sokatira (14:30) izango dira aukeran.

Egun osoan, gainera, martxan egongo da *Hilerraren jolasa* izeneko proposamen interaktiboa. Parte-hartzaileek, egokitu zaien erronkaren bidez, beste herritar bat kanporatzea izango dute helburu. Antolatzaileek azaldu dutenez, parte hartzeko beharrezkoa izango da aurrez izena ematea.

Zuhatzak, gainera, aurtun ere itsaski-jan baten zozketa antolatu du. Txartelak Sasoiko dendaren aurrean egongo den postuan eskuratu ahal izango dira, 12:30etik 14:45era bitartean. Irabazlea 15:00etan jakinaraziko dute. Berritasun gisa, zozketaren baitan sari berezi bat zozkatuko dute Zuhatzako bazkideen artean.

Herri kirolen txanda

Arratsaldean ere ez da ekitaldirik faltako. 17:30ean, entzierro txikia egingo dute gurdiekin, eta, ordu berean, Euskal Herriko Lur Gaineko Sokatira Txapelketako 680 kiloko finala jokatu da. 18:00etan, berriz, buruhandiak aterako dira kalera.

Musikak ere leku nabarmena izango du iluntze-gau partean. Debako Musika Banda kalejiran aterako da, 19:00etan, eta 21:00etan, Farola Sound Systemen emanaldia hasiko da, Plaza Zaharrean. Gauean, Aittu taldearen

erromeria izango da, Foruen Plazan (23:00) eta, Txola eta Potxola DJen emanaldia, Gaztetxean (02:00).

Eta, beti bezala, iganderako iragarri dituzte dagoeneko herrian ondo errotuta dauden eta ospakizun honetan bereziki esanguratsuak diren kultur jarduerak.

Etzi, Debarren Egunean, goizean goizetik nabarituko da mugimendua herrian: 08:00etan, Lizarrako gaiteroen dianak esnatuko ditu herritarrak, eta, ordu erdi geroago, 08:30ean, entzierroa eta sokamuturra egingo dituzte. Ohartarazi dutenez, zezenekin lotutako jardueretan

Iganderako iragarri dituzte ospakizun horretan bereziki esanguratsuak diren kultur jarduerak

16 urtetik gorakoek soilik hartu ahal izango dute parte.

Ohiturari eutsiz, herritar ugari San Roke ermitara igoko dira meza entzuterako. Elizkizuna amaitutakoan, Gure Kaikoek ezpata-dantza egingo dute, ermita aurreko zelaian. Ondoren, Foruen Plazara joaten direnek herriko elkarteek prestatutako salda eta txorizoa dastatzeko aukera izango dute. Eguerdian partean, erraldoiek hartuko dituzte kaleak. Debakoarekin batera, Lizarrako, Oliteko eta Legazpiko konpartsek kalejira koloretsua egingo dute, 11:45ean hasita, Agirre jauregitik abiatuta. Jarraian, 13:00etan, Gure Kaik aureskua dantzatu du, Foruen Plazan.

Ospakizunen azken txanpan, erraldoien alardea egingo dute, Plaza Zaharrean, 18:00etan, eta Heuk Esan taldearen erromeriarekin agurtuko da aurtengo Debarren Eguna, 19:00etan, Foruen Plazan.

Gaueko autobus zerbitzu berezia

Debarren Egunaren bezperan, Lurraldebus bezperan, Lurraldebus bezperan gaueko zerbitzu berezia eskainiko du Deba, Itziar eta Zumaia artean. Bidaiarien joan-etorriak errazteko, autobusak bi orduan behin ibiliko dira. Zehazki, autobusak 01:00etan, 03:00etan eta 05:00etan irtengo dira Zumaia, eta 15 minutu geroago igaroko dira Itziartik. Debatik itzultzeko, berriz, 01:30ean, 03:30ean, 05:30ean eta 07:30ean abiatuko dira.

Barrena
DEBABARRENEKO KOMUNIKAZIO TALDEA

Jarri ezazu zure publizitatea
BARRENA astekarian edo
www.barrena.eus webgunean

943 743 704
688 769 657

Batzoki
ASTEKARIEN BARRA

Asteburuetako menua,
plater konbinatuak...

Plaza Zaharra (Soratuze) Erreserbak: 638 91 15 97

IZENBE

Gosariak • Txikiteoa • Pintxoak

Itur kalea • 943 19 24 73 • DEBA

"Guk ondo pasatzea eta hori transmititzea da helburua"

GAIZKA AYASTUY MARTIJA

PEPPERMINT SEXTET TALDEKO TRONBOI-JOTZAILEA

Peppermint Sextet taldeak bere lehen lan luzea kaleratu du, 'Bixi Bixi zuzenean'; euren estiloa "euskal latin jazz ska project" gisa definitzen dute

Izaro Aulestiarte

Seikotea izan zitekeen, baina bederatzi kide dira Peppermint Sextet taldean: Maiaalen Lopez -ahotsa-, Eider Ormazabal -ahotsa eta xekerea-, Izaskun Gonzalez -tronpeta-, Ixak Oiartzabal -saxofoia, zeharkako flauta eta alboka-, Ion Pombar -teklatura-, Gabi Hernandez -gitarra-, Genis Muñoz -kontrabaxua eta ahotsa-, Asier Llordes -perkusio latino- eta Gaizka Ayastuy debarra -tronboia-. Azken horrekin batu da BARRENA, plazaratu berri duten diskoa aitzakia hartuta. **Aurretik bi EP kaleratu ditu taldeak, eta lan luzea iritsi da orain. Nolatan zuzeneko diskoa?**

Egiten duguna aurkezteko zerbait edukitzea zen helburua; behar den bezalako grabaketaren bat izatea, nonbaiten jo nahi dugunean, adibidez, geure burua aurkeztu ahal izateko. Eta bideoa ere izan nahi genuen, taldea zuzenekoan ikusteko, eszenatikian hainbeste kide mugitzen ikustea ere ezberdina baita. Hasi-eran, hiruzpalau abesti grabatzea pentsatu genuen, baina Pasai Donibaneke Bixi Bixi elkartearen Kultur Aterpean emandako kontzertua nahiko kurioso irten zen, teknikariak ere esan zigun diskoa ateratzeko bezala zegoela, merezi zuela, eta, azkenean, horrela egin genuen.

Eta zer dakar, azkenean, diskoak? Hamabi abesti daude bertan, denak bertsioak, baina oso-oso ezberdinak: skatik hasi, kanta herrikoietatik segi, musika afrikarra, cumbiaren bat ere bada- go tar-tean, jazz estandar batzuk... **Horregatik definitu duzue estiloa "euskal latin jazz ska project" gisa?** Gauza ezberdinak jotzen ditugu, eta nik uste dut horrek egiten gaituela ezberdin. Norbait gure kontzertua ikustera etortzen bada, zuzenekoan ere estilo ezberdin asko entzungo ditu.

Hamaika emanaldi egin dituzue, eta datozen hilabeteotako agenda nahiko bete duzue, ezta? Diskoa aurkezten zabilzate kontzertuetan?

Diskoko kantak jotzen ditugu, baina beste zenbait ere bai; kontzertuetan 17-18 abestirekin ibiltzen gara, lekuaren arabera. Eta, bai, hainbat emanaldi lotu ditugu: maiatzean Lasarten eta Tolosan, ekainean Oiartzunen, Villabonan, Deban -27an- eta Altxabarren; uztailean Lizarrako kanpian eta Oreretako jailetan; abuztuan Donostiako festetan... **laz giro ederra izan zen Kultur Elkartearen eman zenuten kontzertuan. Publikoarekin konektatzea izaten al da helburua?**

Nire ustez, guk ondo pasatzea eta hori transmititzea da helburua. Badaude bi edo hiru abesti oso bereziak direnak, eta saiatzen gara horiek jotzen, ikusleek parte har dezaten. Eta kontzertu hasierak ere ezberdin samarrak izaten dira; kalean hasten gara jotzen, eta ohikoa izaten da kalejiran bezala sartzea. **Peppermint Sextetek duela hiruzpalau urte hasi zuen ibilbidea. Zu noiz batu zinen proiektura? Gustura al zabilzate?**

Orain dela urte bat eta hiru bat hilabete hasi nintzen, gutxi go-

rabehera. Eta oso pozik, bai; talde-giro oso ona daukagu.

Ezin ahaztu, Gaizka, Debako Musika Bandan egin zenuen ibilbidea. Hura utzi, "erretiroa hartu", nolabait, eta beste saltsa honetan sartu zara...

Bueno, jadanik kide ohia naiz, baina nik oraindik ere esaten dut Debako Musika Bandakoa naizela. Kontua da Deban hasi nintzela brigadan lanean, eta banda irteten den bakoitzean guk lana topera izaten dugu. Gainera, urte asko neramatzan bandan, semeekin ere denbora dezente egiten genuen eta... Ikusten nuen ezingo niola hainbeste eskaini bandari, ordu asko eskatzen dituelako, eta, momentuz, laga egin nuen. Garbi neukana zen tronboia jo nahi nuela, horrekin jarraitu nahi nuela, eta Josu Salegirekin hasi nintzen eskolak hartzen; beste mundu bat, beste hizkuntza bat ikusten, inprobisazioa lantzen... Beste zerbait ikasteko gogoia neukan, eta oso gustura nabil.

Banda batetik, talde handi batetik, Peppermint Sextetera. Alde handia al dago?

Harremanen kontuari dagokionez, agian: taldean 8-9 lagun izanda, harremanak pixka bat estuagoak dira, eta, gainera, adin berdin



Gaizka Ayastuy (Deba, 1972), diskoa esku batean eta tronboia bestean. ALEX TURRILLAS

samarrekoak gara guztiak... Baina, funtzionatzeko eran, nik uste dut, azken finean, konpromiso handia dela edozein taldetan egotea. Pertsona batek erakutsi zidan, eta nik beti esan izan dut gauza ona dela galdera bat egitea norbere buruari lantaldean zaudenean; berdin du zer arlotan: *Norberak egiten duena denok egiten badugu, funtzionatzen du? Edo funtzionatuko luke egiten dugunak?* Galdera hori norbere buruari egitea ondo dagoela uste dut. Entseguetara joan egin behar da, eta, konpromiso bat hartuz gero, ahalegina egin behar da.

Eta ahalegina eginez gero eta jarrera ona izanda, gauza horrek aurrera egin dezake.

36 urte bandan, orain ere aktibo, ikasten... Muskarik edo tronboirik gabeko bizitarik irudikatzen al duzu? Gaur egun ez, behintzat. Horregatik esan dizut oraindik bandako kide sentitzen naizela; niri Debako Musika Bandak asko eman dit. 12 urterekin sartu nintzen musikaren mundu honetan, ez dakit ondo nola, familiarik ez zetorkidan-eta niri hau dena, eta oso polita izan da. Banda utzi nuen, baina ez tronboia, eta, oraingoz, ba... jarraitzeko prest.

"Gauza ezberdinak jotzen ditugu, eta nik uste dut horrek egiten gaituela ezberdin"

"Jadanik kide ohia naiz, baina nik oraindik ere esaten dut Debako Musika Bandakoa naizela"



Peppermint Sextet taldearen kontzertua, iazko ekainean, Kultur Elkartearen. MARTIN LORES

Partidu garrantzitsuak irabazi dituzte Amaikak-Bateko talde nagusiek

Azken hiru puntuek bultzada ederra eman diete sailkapenean gora egiteko

Nerea Bedialauneta Alkorta

Asteburu erabakigarria izan dute Amaikak-Bateko talde nagusiek, nor bere helburuei begira. Pasaia 4-0 mendean hartuta, emakumezkoek Gorengo Mailako igoera fasean aurrera egiteko aukera sendotu dute, eta Euskaldunari 2-1 irabazita, gizonetzkoek Ohorezko Erregional Mailari eusteko lehian jarraitzeko aurrerapausoa eman dute.

Gipuzkoako Emakumezkoen Gorengo Mailako igoera fasean murgilduta dagoen taldeari dagokionez, etxean lortutako azken garaipenari esker igoera postuetara gerturatzea lortu du. Gaur egun, bosgarren postuan dago, 18 punturekin. Usurbil eta Antiguoko daude sailkapeneko lehen bi postuetan, baina debarek gertutik jarraitzen diete: bost eta hiru puntura, hurrenez hurren.

Hiru jardunaldi besterik ez da falta igoera fasea amaitzeko, eta lehia estua da goiko postuetan. Egoitz Konde klubeko presidentek adierazi du taldearen helburua argia dela: "Azken unera arte borrokan jarraitzea". Etzi, maiatzak 17, izango dute hurrengo neurketa: Usurbilen aurka ariko dira, zuzenean igoerarako lehian eragin handia izango duen partidari.

Salbaziorako bidean

Bestelako egoeran dago gizonetzkoen talde nagusia. Asteburuan lortutako hiru puntuei esker,



Gorengo Mailako igoera fasean murgilduta dagoen emakumezkoen taldea. LEARTIGOL



Amaikak-Bateko gizonetzkoen talde nagusia. LEARTIGOL

13. postuan dago sailkapenean. Gaur-gaurkoz, 34 puntu ditu, eta puntu bakarra nahikoa izango luke mailari eusteko.

Bi jardunaldi besterik ez da falta liga amaitzeko, baina, mailari eutsi nahi badiote ezingo

dira erlaxatu Aitor Duñabeitiaren mutilak. Bihar, maiatzak 16, Mondragon taldearen aurka ariko dira, Arrasateko Mojategi futbol-zelaian, eta azken jardunaldian etxean hartuko dute Real Union; liderra da egun.

ezinbestekoak dira, baina beste batzuk unean uneko egoerak eraginda osatu dira.

Batzuek denboran luze irauteko sortu badira ere, beste batzueganako interesak muga du. Eta horrelakoetan zer egiten dugu? *Alde egin* edo baten bat *bota*? Alde egin ez dugu zenbaitetan nahi izaten, nahiz eta bertako jardueretan, jada, parte hartu ez. Horrelakoetan argitaratzen

dena begiratzen dugu, besteen berri izaten jarraitu nahi dugu eta; kuriositate hutsa? Inor botatzea ere ez zaigu bidezkoa edo zuzena iruditzen; horregatik, azpitaldeak sortzen ditugu eta azpitaldeen azpitaldeak.

Eta, gainera, geure buruarekin ere sortzen dugu taldea, geure buruari mezuak, argazkiak, loturak... bidaltzeko. Nik horrelako bi ditut.



Apirilaren 22an Kultur Elkartearen egin zuten saio informatiboa. DEBAKO UDALA

Hilaren 31n itxiko dute tokiko energia-komunitatean izena emateko epea

Debako Udalak "oso modu positiboan" baloratu du proiektua, herritarren "parte-hartze aktiboa" azpimarratuta

Izaro Aulestiarte DEBA-ITZIAR

Udal Gobernuaren esanetan, "martxa onean" doa TEK Deba-Itziar energia-komunitatea sortzeko prozesua, herritarrentzat energia-eredu berri baten oinarriak ezartzeko asmoz. "Aurreikusitako bidea" egiten ari da. "Herritarren parte-hartzea aktiboa izaten ari da, eta izena emateko prozesuak aurrera jarraitzen du. Proiektuan sartzeko aukera irekita dago, baina plaza kopurua mugatua da, eta eskuragarritasuna pixkanaka murrizten joango dela aurreikusten da", ohartarazi dute. Bada, izen-ematea maiatzaren 31ra arte egongo da zabalik; Internet bidez eman daiteke izena, *labur.eus/11wupt06* helbidean sartuta.

Ekimen horren bidez, etxebizitzek eta saltoki txikiek tokian bertan sortutako energia berriztagarria erabiltzeko aukera dute; hala, autokontsumoa sustatu, eta energia-hornidura eredu jasangarriago bateranzko pausoak emango dituzte. "Energia-komunitatean parte hartzen duten pertsonen energia berriztagarriaren onura izango dute, instalaziorik edo obrarik egin beharrik gabe, eta %25era arteko aurrezki lortu ahalko dute euren faktura elektrikoan", nabarmendu dute.

Bide batez, proiektuaren ikuspegi soziala ere azpimarratu du Udalak. Izan ere, sortutako energiaren zati bat egoera ahulenean dauden familiei bideratzea zehaztu dute, "trantsizio

energetikoa bidezkoa eta inklusiboa izan dadin".

"Urrats garrantzitsua"

Debako alkate Alazne Txurruka baikor dago proiektuaren bultzatzen. Hauxe azpimarratu du: "TEK Deba-Itziar proiektua oso modu positiboan baloratzen dugu. Herrian energia berriztagarria sortu eta partekatzeak aukera erreala eskaintzen du, eta Debaren etorkizun energetikorako urrats garrantzitsua da". Horiek horrela, oraindik ere izena eman ez duten herritarrei dei egin die "aukera hori baliatu eta komunitate energetiko horren parte izan daitezten".

Egitasmoari buruzko informazioa emateko eta zalantzak argitzeko helburuarekin, bi saio informatibo egin dituzte azken asteotan: bata, apirilaren 22an, Deban, Kultur Elkartearen; eta bestea, apirilaren 28an, Itziarren, Burugorriin. Halaber, informazio gehiagorako, herritarrek *www.comunidadenergeticalocal.eu/eu/proiektuak/deba-itziar/* webgunea kontsultatu edo 900 85 96 95 telefono zenbakira deitu dezakete, doan -astegunetan, 10:00etatik 18:00etara-.

Aukera hori baliatu, eta komunitatearen parte izatera animatu dituzte herritarrak

NIRE USTEZ

Whatsapp-taldeak



ARANTZA IRIONDO

Zenbat Whatsapp-taldetako kide zara? Azken aste hauetan telefonoari astindu bat ematen ibili naiz, eta, egia esan, harrituta geratu naiz zenbatetan nagoen, eta zenbat azpitaldetan ere bai.

Taldeak sortu berehala sortzen ditugu, eta batzuk

ARGAZKI ZAHARRA

Manuel Echaniz Arambarri, mediku bat baino askoz gehiago



ALEX TURRILLAS ARANZETA
KULTUR ELKARTEKO KIDEA

Itziarren zein Deban, sendagile ezagunenetakoa eta maitatuenetakoa izan zen Manuel Echaniz Arambarri; 1924ko ekainean hartu zuen Itziarko mediku titularraren plaza, eta, ondoren, Debakoa, 1956ko uztailean hil zen arte.

Argazki hori, ziurrenik, joan den mendeko berrogeiko hamarkadan aterata dago. Bertan, Lasturko San Nikolas plazan ikusten dugu Echaniz, harmoniuma jotzen, musika-tresna inauguratu zuten egunean, jende askoren aurrean. Harmoniumaren gainean, berriz, aterki bat, botila bat eta baso bat ardo.

1924ko ekainean, Itziarko mediku titularraren plaza

lehiaketara atera ondoren, sei hautagai aurkeztu ziren deialdira: Marcelo Fernandez Mendia, Bilbokoa; V.L. Ferrer Mariño, Arronizko (Nafarroa) mediku titularra; Vicente Muriel Jimenez, Salamancakoa; Jesus Sanchez Garcia, Madrilgoa; Faustino Zapatero Ballesteros, Valladolidekoa; eta, azkenik, Manuel Echaniz Arambarri, Itziarko bitarteko medikua.

Haietako batzuen curriculumak bikainak izan arren, Manuel Echaniz aukeratu zuten lanposturako, isilpeko bozketa bidez; izan ere, 1924ko ekainaren 24ko udal-aktan irakur daitekeenez, bera zen hautagai guztien artean euskaraz hitz egiten zuen bakarra, eta garai haietan Itziarko biztanle gehienek ez zuten gaztelaniaz hitz egiten.

Denborak justifikatuko zuen erabaki hura, Manuel Echanizek udalerrri osoaren errespetua, adiskidetasuna eta maitasuna irabazi baitzituen. Azkoitian 1893an jaioa, Nemesio Echaniz apaiz, poeta, dramaturgo eta musikari ospetsuaren anaia zen; XX. mendeko euskal kulturaren erreferente handienetako bat. Anaia bezalaxe, Manuel bera ere gizon kultua izan zen, polifazetikoa, umore apartekoa, eta benetan lagunkoia.

Gerra zibilean, 1937an, udal frankistak 12 hilabeteko zigorra ezarri zion, soldata erdira murriztuz, bere pentsaera nazionalistengatik. Zigortuen artean, zigor berarekin, Eduardo Barrera farmazeutikoa eta Jose Sagarna –argiaren eta uraren arduraduna– ere bazeuden.



Asentzio jaietako artxiboko irudi bat. ANDONI ELDUAIEN SORALUZE / UROLA KOSTAKO HITZA

Atzo hasi ziren Asentzio jaiak Endoian, eta egitarau betea izango da egunotan

Igande iluntzera arte iraungo dute festek auzoan; ez da faltako musikarik, mus txapelketarik eta otordu berezirik

I.A. ITZIAR

Lau eguneko egitaraua ondu dute aurten Endoia Gazte Elkartek, Gaztendoia Endoia Auzo Elkartek, Itziarko Auzo Udalak eta Zestoako Udalak elkarlanean. Beste urte batez, musika, dantza, mus txapelketa, auzotarren bazkari eta afariak eta herri-kirolak izango dira protagonista igandera bitartean.

Jaiak atzo hasi ziren, Asentzio Egunean. 19:30ean jaurtitako txupinazoarekin hasi ziren ospakizunak, ondoren meza izan zuten eta gauean auzotarren afaria egin zuten, Ane Urbietak eta Haitz Martin trikitilariekin.


Gaur, ostiralez, iluntzean hasiko da jai giroa: lehenik, pintxo-poteoa egingo dute, 19:00etan; gauean –22:00etan–, berriz, Endoia II. Mus Txapelketa jokatu dute. Parte hartzeko izen-ematea 20 euro

da, eta lehen lau sailkatuek jasoko dituzte sariak.

Bihar, umeen eta gazteen eguna izango da. Haurrentzako puzgarriak eta kart zirkuitua izango dira, 12:00etatik 19:00etara. Txokolate-jana egingo dute, 17:00etan, eta auzo afaria izango da gauean, Endoia biltokian. Festa giroari amaiera DJ Indatek jarriko dio, 23:00etan hasita.

Herri kirolak, egitaraua ixteko

Igandea izango da jaien azken eguna. 11:00etan, meza egingo dute, eta, 12:00etan, Itziarko Andutz Dantza Taldeak alaituko du giroa. Luntxa eta auzo bazkaria izango dituzte ondoren, eta 17:30ean, herri kirolak hasiko dira: aizkoran Xabier Zaldua eta Aratz Mugertza ariko dira aurrez aurre eta herri-jasotzen Goizeder Abendibarrek eta Ainitze Zumetak egingo dute erakustaldia.



LAN DEIALDIA

Ostiraletan Debako eta Itziarko herriguneetan Barrena astekaria banatzeko langilea

Eskatzen da:

- Ostiraletan lan egiteko disponibilitatea.
- Autoa eta gidabaimena izatea.

Eskaintzen da:

- 9 orduko jarduna astekaria banatzen den egunean.

Bidali zure curriculumak: banaketa@barrena.eus

HORTZ KLINIKA

Odontologoak
Nora Unzetabarrenetxea
Maitena Arrizabalaga

Gipuzkoa kalea 20, Zarautz
943 83 04 24 - 653 92 17 12

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA

ESKAITZAK

Elgoibar. San Lazaro egoitzarako sukaldari bila gabiltza, ordezkapen bat egiteko. Curriculumak egoitzako harreraren utzi edo dir.elgoibar@biharko.org helbidera bidal daitezke.

ESKAERAK

Elgoibar. Udaldian umeak zainduko nituzke, arratsaldeetan. Atxutxiamaikan hezitzaile ibilitakoa naiz. 688 63 28 91

Elgoibar. Adinekoak zaintzeko prest nago: etxeko langile, asteburuetan, orduka... Erabateko malgutasuna. 602 49 05 95

Elgoibar. Adinekoak zaintzeko prest nago: asteburuetan, orduka... Erabateko malgutasuna. 624 34 34 51

Elgoibar. Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. 631 31 94 76

Elgoibar. Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia daukat baita ere pintore, arotz, konponketa... lanetan. Ameriketako Estatu Batuetan egin nituen lan horiek. 603 72 70 67

Elgoibar. Zaintza alorrean egin nahi nuke lan. Adinekoak zaintzen eskarmentua. Lanerako prestutasun osoa, bai eta malgutasuna ere. 642 578 943

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN HARTU

Elgoibar. Etxea hartuko nuke alokairuan, Elgoibarren. Epe luzerako. 602 30 40 08

LAN DEIALDIA

Barrenak banatzailea behar du Deban eta Itziarren Barrena astekaria banatzeko. Interesatuok idatzi banaketa@barrena.eus-era

OHARRAK

1956ko kintoen bazkaria Elgoibarren

1956ko kintoen bazkaria ekainaren 13an. Kalegoen plazan batuko dira, 12:30ean, argazkia ateratzeko. Luntxa, Ibai Ondon, eta ondoren, bazkaria, Txarridunan. Interesatuok 75 euro ordaindu behar dituzte Laboral Kutxako kontu honetan, izena eta bi abizen zehaztuta: ES15 3035 0007 20 0071147446. 696 455 024 (Antonio) / 630 286 363 (Begoña)

ZORION AGURRAK



MENDARO

Martin

Zorionak, Martin, igandean lehenengo jaunartzea egingo duzulako. Familiakoan, amama Mariasunen eta arreba Mileneren partez. Ondo pasa eguna.



MALLABIA

Leize

Zorionak etxeko printzesari. Urte bat gure bizitza alaitzen.



ELGOIBAR

Laia


Zorionak, Laia, igandean 10 urte beteko dituzulako. Izebaren eta, bereziki, Sararen partez.



ELGOIBAR

Maddi

Zorionak, Maddi! Gaur 6 urte bete dituzu, eta primeran ospatuko dugu. Muxu potolo bat, Ekhiren eta etxekoan partez.



ELGOIBAR

Asier

Zorionak, Asier, domekan 9 urte beteko dituzulako. Ondo pasa, txapeldun! Familiakoan partez.



ELGOIBAR

Elai

Aunitz urtez, Elai! 3 urte eder gozatu ahal izan ditugu zure ondoan eta aintzin ditugunak! Biziki maite zaitugu. Zure familia eta lagunak.



SORALUZE

Bidane

Zorionak etxeko guztien partez!

Zorion-agurra jartzeko, hiru bide:

- 'Barrena.eus'-en erabiltzailea sortu eta barrena.eus/zorionagurrak helbidean sartu.
- Mezua bidali herrietako erredakzioetara edota Whatsappez 688 65 56 58 zenbakira edo e-postaz zorionagurrak@barrena.eus. Zehaztu izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta testua.
- Etorri edo deitu gure betiko egoitzetako batera.









AURRE-MATRIKULA

MAIATZAK 4tik 22ra

IKASTETXE PUBLIKO DOAKOA



MERKATARITZA



ADMINISTRAZIOA
ETA
KUDEAKETA



INFORMATIKA ETA
KOMUNIKAZIOAK



JARDUERA
FISIKOAK ETA
KIROLAK

IZENA EMAN EDO DEITU

📞 943 89 92 11 · www.uni.eus



ELGOIBAR

I. urteurrena

Koro Aldaz Iraola

2025eko maiatzaren 19an hil zen, 71 urte zituela.

*Borrokalaria nekaezina izan zinen
azken egunera arte;
beti izango zara gure oroimenean.
Maite zaitugu.*

Etxekoak



ELGOIBAR

III. urteurrena

Lorea Sasiain Garate

2023ko maiatzaren 18an hil zen, 64 urte zituela.

*Laster arte ezpainetan,
utzi gintuzun penatan.
Orain gure ametsetan,
bizirik zaude benetan,
zeruko izarretan.*

Etxekoak



Haren oroimenez III. urteurreneko meza izango da, domekan, maiatzaren 17an, 11:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliza-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak

Barrena eskelak: zabalkunde handiena Debabarrenean

ESKELAK JARTZEKO:
943 744 112 - barrena@barrena.eus


Bulegoak:
DEBA: Ifar kalea, 12 - 943 191 383
ELGOIBAR: Aita Agirre plaza, 3 - 943 744 112
ERMUA: Erdikokale Zeharbidea, 2 - 943 179 350
SORALUZE: Errabal, 15 - 943 751 304



ETXEBERRIA

EHORZKETA-BEILATOKIA

943 74 13 27 (24 orduz)
635 75 62 95 - 629 63 52 03



Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

Norbanakoei eta konpainiei
zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentroetan zerbitzuak.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN EGUERDIRAKO.
943 74 41 12 / barrena@barrena.eus

OSTIRALA 15

- **SORALUZE Kantu jolasak** Katamarran ume-txokoan, 10:00etan.
- **DEBA Erakusketa: '2 zaletasun' (Juan Ignacio Aizpurua)** Erakusketa zabalik egongo da ekainaren 4ra arte. Eguneko Zentroan, 10:00etatik aurrera.
- **MALLABIA LGBTIQ+ liburu interesgunea** Ekainaren 15era arte. Udal liburutegian, 16:00etatik 19:00etara.
- **ELGOIBAR Odol ateratzea** Txanda hartzeko: gotatanta.eus. Whatsapez: 623 32 84 08. Jubilatuen Biltokian, 16:30ean.
- **SORALUZE Eusfera: 'Kantu-jolas tailerra familientzat'** 0 eta 5 urte bitarteko umeentzat eta haien gurasoentzat kantuak dituzten jolasen tailerra egingo da. Katamarran ume-txokoan, 17:00etan.
- **MENDARO Buruarinak egiteko tailerra aurrez izena emandakoentzat** Frontoian, 17:00etan.
- **DEBA Banakako txapelketa gomazko pilotarekin** Lehen fasea: Aizpurua (Iruleak) - Iriondo (Hernani). Aldats pilotalekuan, 18:00etan.

- **SORALUZE Erakusketa: 'Pintura eskolako ikasleen lanak'** Erakusketa aretoan, 18:30ean.
- **ITZIAR Endoiako Asentzio jaiak** 19:00etatik 21:00etara, pintxo-poteoa. 22:00etan, Endoiako II. Mus Txapelketa -izen-ematea, 20 euro-.
- **SORALUZE Aurkezpena: 'Herritu' ekimena (Gure Esku)** *Herritu* kolektibo bilakatzeko norbanako ekintza aurkeztuko da. Plaza berrian, 19:00etan.
- **ELGOIBAR Antzerkia: 'Nahi eta ezin'** Taupada antzerki taldearen eskutik, Herriko Antzokian, 20:30ean.

LARUNBATA 16

- **ELGOIBAR Ermitak ezagutzeko ibilaldia** Ermitak ezagutzeko ibilaldiak dibulgazio historikoa, erlijiosoa, artistikoa eta geologikoa uztartuko ditu. Pello Arrieta, Javier Elorza eta Inma Mugertza izango dira irteerako gidariak. Kalegoen plazan, 08:00etan.
- **DEBA 33. Haur Margo Lehiaketa, aire zabalean** Udaletxe azpian banatuko dituzte artelanak sortzeko laminak, 09:30ean, eta

partaideek leku berean aurkeztu beharko dituzte lanak, gehienez ere hiru orduko epean -12:30era arte-. Sari-banaketa ekitaldia 17:00etan izango da, Kultur Elkartearen.

- **ITZIAR Endoiako Asentzio jaiak: Umeen eta Gazteen Eguna** 12:00etatik 19:00etara, puzgarriak eta kart zirkuitua haurrentzat. 17:00etan, txokolate-jana. 21:00etan, afaria, Endoiako biltokian. 23:00etan hasita, DJ Indate.
- **ELGOIBAR Zientzia azoka** Sigman, 11:00etan.
- **SORALUZE Eusfera: 'Altxorraren bila sendabelar artean'** 0-12 urte bitarteko umeak dituzten familientzat. Bidegorrian, 11:00etan.
- **DEBA 'Debarrak euskeraz. Zatoz jolastera!'** Adaxka Debako gazte euskaltzaleek antolatuta. 13:00etan, txapel jaurtiketa. 13:30ean, sokasalto. 14:00etan, Kahoot-a. 14:30ean, sokatira. Egun osoan, *Hilerraren jolasa*. Plaza Zaharrean.
- **MALLABIA Katiluak margotzeko tailerra** Mallabiko Udalak, Zapatuero programaren baitan, hurrek katiluak margotzeko tailerra antolatu du. Kontzejuzarran, 16:00etan.
- **MALLABIA Diru-zorro birziklatuen tailerra** Mallabiko Udalak, Zapatuero programaren baitan, nerabeek diru-zorro birziklatuak egiteko tailerra

antolatu du. Zurrutokian, 16:00etan.

- **SORALUZE Hiru Txirlo bola txapelketa** San Andresko bolatokian, 17:00etan.
- **ERMUA Parkour tailerra** Udal Gazteria Zerbitzuak antolatuta. Doakoa. Informazio gehiago: ermua.eus/gazteria@ermua.eus / 689 04 25 71. Liburutegiko sarreran, 17:00etan.
- **DEBA Bisita gidatua: 'Debatik Zumaiera itsasantziz'** Kopuru mugatua. Beharrezkoak: jantzi egokiak, eguraldiaren arabera. Prezioa: 16 euro -12 urtetik beherakoentzat, 10-. Informazio gehiago eta erreserbak egiteko: geoparkea.eus. Irteera-puntua: Anes Arrinda pasealekua (pantalana), 17:30ean.

IGANDEA 17

- **ITZIAR Marearteko zabalgunera bisita gidatua** Kopuru mugatua. Beharrezkoak: haitzetan ibiltzeko oinetako egokiak eta ura. Gutxieneko adina: 10 urte. Prezioa: 17 euro -12 urtetik beherakoentzat, 9-. Informazio gehiago eta erreserbak egiteko: geoparkea.eus. Errotaberri parkingean (Sakoneta), 10:00etan.
- **MALLABIA Gomazko paleta finalak** Bizkaiko Eskolarteko 43. gomazko paleta finalak (BFA). Herriko frontoian. 10:00etan.
- **ITZIAR Agur ekitaldia Jokin Urain 'Kixkur' idazle eta preso ohiari** Lasturren, 12:00etan.
- **ITZIAR Endoiako Asentzio jaiak** 11:00etan, meza. 12:00etan, Itziarko Andutz dantza taldea. 13:00etan, luntxa. 14:00etan, auzo bazkaria, Endoiako biltokian. 17:30ean, herri kirolak.
- **SORALUZE Elkarretaratzea: LGTBIQ+ Fobiaren Aurkako Eguna** Soraluze Udaleko Berdintasun Sailak antolatuta. Plaza Berrian, 13:00etan.



DEBA Debarren Eguna

OSTIRALA 15: 18:30ean, paella lehiaketa, Itziar bideko Luzaro ikastetxeko patioan. 19:30ean, Klean Kantuz. 22:00etan, Debako Musika Bandaren kontzertua, elizako klaustroan.

LARUNBATA 16: 12:00etan, bertso-pilota, Aldats frontoian. Bertsolariak: Beñat Gaztelumendi eta Eli Pagola. Pilotariak: Iker Elizegi, Mikel Gofii, Julen Urruzola eta Iker Urmeneta. 13:00etan, Debako eta Azkoitiko gaiteroen kalejira. 13:00etan, Banda Gaztearen kalejira. 17:30ean, entzierroa gurdiekin. 17:30ean, EHko Lur Gaineko Sokatira Jardunaldia 2026, zumardian (680 kilo). 18:00etan, buruhandiak kaleetan zehar. 19:00etan, Debako Musika Bandaren kalejira. 21:00-22:30ean, Farola Sound System, Plaza Zaharrean. 23:00etan, Aittu erromeria, Foruen plazan. 02:00etan, Txola eta Potxola DJak, gaztetxean.

IGANDEA 17 (Debarren Eguna): 08:00etan, diana, Lizarrako gaiteroekin. 08:30ean, entzierroa eta sokamuturra. 11:00etan, ezpata-dantza, San Roke ermitan. Ondoren, herriko elkarteek eskainitako salda eta txorizoa, Foruen plazan. 11:45ean, erraldioen konpartsen desfilea: Lizarra, Olite, Legazpi eta Deba. 13:00etan, Gure Kai Dantza Taldearen eskutik aurrekua, Foruen plazan. 18:00etan, erraldioen alardea, Plaza Zaharrean. 19:00etan, Heuk Esan erromeria, Foruen plazan.

- **SORALUZE Zineforum feminista: 'Maspalomas'** Emakumeon* Ahalduz Eskolako udaberri eta udako egitarauaren baitan antolatutako ekintza. Herri Antzokian, 18:00etan.

- **SORALUZE Tailerra: 'Aurretiazko borondateak'** Pertsona gaixok erabakietan parte hartzeko gaitasuna galtzen duenean, ematen zaion osasun-arreta alde zuzen dokumentua lantzeko tailerra. Kalebarren 8an, 10:00etan.
- **MENDARO Homofobiaren, Lesbofobiaren eta Transfobiaren Aurkako Nazioarteko Eguneko Mendaroko eskola-umeen ekitaldia** Nazioarteko eguna da maiatzaren 17a, eta biharamunean, bilduko dira. Tolarekuan, 09:00etan.

ASTELEHENA 18

- **SORALUZE Haur eta nerabeen kontseilua** Haur eta nerabeen kontseiluak kontsultarako organoak dira; herriaren kudeaketarekin zerikusia duten gaiak buruzko haurren (LH3-6) eta nerabeen (DBH1-4) ikuspegia lantzen da. Alkatearekin, zinegotziarekin eta gaiaren araberako teknikariekin

ELGOIBAR EME Eguna

LARUNBATA 16: Plaza txikian: 12:30ean, Gabi eta Alfon. 13:15ean, Leftovers. Maalan: 19:00etan, Xut. 20:00etan, Brilet. 21:00etan, Ellie Jensen. 22:00etan, bertso-festa. Antolatzailea: Elgoibarko Musikarien Elkarte (EME).



astelehenean, Mendaro ikastolako haurrek manifestua irakurri, bandera osatu eta talde-argazkia aterako dute. Herriko Enparantzan, 10:30ean.

- **DEBA Pentsiodunen mobilizazioa** Foruen plazan, 12:00etan.

ASTEARTEA 19

- **DEBA Adimen artifizialari buruzko tailerra** Oinarrizko saioa. Arbil Elkarte Sozialaren ekimenez. Mari Piris Elkarmediako kideak gidatuko ditu saioak. Izen-ematea aurrez egin behar da. Arbil elkartearen, 15:00etan.
- **ELGOIBAR Paperezko hegoak, gaztetxoak irakurketa kluba** Peru Magdalenaren eskutik, Alfredo Soderguit-en *Kapibarak* landuko dute. Liburutegian, 17:00etan.
- **ERMUA Elkarrekin Arnasten 2.0** Mugimendu eta arnasketa kontzientea psikoaromaterapiarekin konbinatzen dituen emakumeentzako programa. Amanda Abaigar Villaren eskutik. 5 euro. Emakumeen Topalekuan, 17:30ean.
- **ERMUA Haurrentzako tailerra: 'Naturarekin jolasean'** Tailerraren helburua naturako elementuak erabilia objektuak sortzea izango da. 2019an eta 2020an jaiotako haurrei zuzenduta. Liburutegiko hirugarren solairuan, 17:30etik 18:30era.

ERMUA Erakusketa: 'Gu ere bagara!'

ASTEARTEA 19: Ines Bermejo artistak eta Julen Nafarrate kazetariak bultzatutako sormen-lana da. Helburua da Getxoko LGTBIQ+ nagusien kontatu gabeko istorioak jasotzea, eta, aldi berean, ezagutu zer-nolakoak diren euren errealitatea eta bizipenak. Antolatzailea: Lagun Artea. Emakumeen Topalekuan, 18:00etan. Ekainaren 30era arte.

MENDARO Roberto Nieva saxofoi jotzailearen kontzertua

OSTIRALA 22: Roberto Nieva saxofoi jotzaile eta konpositorearen kontzertua. Mesa 7 elkarteak antolatuta. San Agustin kurgunean, 21:30ean.



ASTEAZKENA 20

- **SORALUZE Nagusien kontseilua hileroko bilera** Kalebarren 8an, 10:00etan.
- **SORALUZE Bilera: Santiago eta Santa Ana jaien prestaketa** 2026ko Soralezko jaiak prestatzeko bilera herriko eragileekin. Kalebarren 8an, 18:00etan.
- **SORALUZE Gaztelerazko irakurle taldea: 'Dulce tierra prometida'** Monica Leivak dinamizatuta. Udal liburutegian, 18:30ean.
- **MALLABIA Menditour dokumentalak** Mallabiko Udalak antolatuta, lau dokumental emango dira Kontzejuzarran, 19:00etan.
- **DEBA Barretegia. Umorezko bakarrizketak** Bakarrizketariak: Aitor Basarrate, Asier Galarza, Maria Blanco, Manex

Astigarraga, Elisabet Mejuto eta Julen Pagazaurtundua. Sarrerak: 5 euro. Internet bidezko salmenta: labur.eus/barretegiadeba11. Kultur Elkartearen, 19:30ean.

OSTEGUNA 21

- **DEBA Adimen artifizialari buruzko tailerra** Oinarrizko saioa. Arbil Elkarte Sozialaren ekimenez. Mari Piris Elkarmediako kideak gidatuko ditu saioak. Izen-ematea aurrez egin behar da.
- **ELGOIBAR Isiltasunaren eskola** Jose Cruz Igartuarekin. Kultur Etxean, 19:00etan.
- **DEBA 'Baso bete zientzia' hitzaldiak: Maialen Beristain eta Teresa Aceña** Maialen Beristain –Matematikan doktoregaia–: *Kriptografia,*

sekretuen zientzia / Teresa Aceña –Immunologian doktoregaia–: *Gure barneko detektibeak. Sistema immunologikoa ezagutzen.* Kultur Elkartearen, 19:00etan.

- **ERMUA Mintzodromoa** Kaltxango AEK Euskaltegian, 19:00etan.

OSTIRALA 22

- **SORALUZE Odol emaileen hitzordua** Itxaropena Jubilatuta Elkartearen, 16:30etik 20:30era.
- **ELGOIBAR Egur-arte tailerrekoen erakusketa** Ikasle umeen lanak jarriko dituzte ikusgai, maiatzaren 30era arte. Kultur Etxean, 18:30etik 20:30era.
- **MENDARO Onintza Enbeitaren 'Bizitza baten txatalak' liburuaren aurkezpena** Udaletxean, 19:00etan.
- **DEBA Kontzertua: Koda eta Arramazka** Itxas Gain tabernan, 19:30ean.
- **DEBA 'Tongola' umorezko ikuskizuna** Ugaitz Alegria eta Ainhoa Etxebarria aktore ondarrutarraren eskutik. KulturEkin programaren baitan antolatutako emanaldia. Sarrera: 5 euro (labur.eus/tongolakulturekin). Kultur Elkartearen, 20:00etan.



GUARDIAKO FARMAZIAK

15 BARIKUA Oruesagasti / A. Zalduegi / A. Alcalá
16 ZAPATUA Barrenetxea / A. Zalduegi / I. Ugarte / *M. Alves
17 DOMEKA Barrenetxea / A. Zalduegi / I. Ugarte
18 ASTELEHENA Soto / L. Apraiz / A. M. Baz
19 MARTITZENA Garitaonandia / L. Apraiz / M. Alves
20 EGUAZTENA Arriola / L. Apraiz / I. Lecumberri
21 EGUENA Fernandez / L. Apraiz / M. Alves
22 BARIKUA Yudego / Lasuen-Elezgaray / I. Ugarte

*09:00-13:30

2026ko botika ordutegiak, astelehenetik ostiralera:

Deba: 09:00-13:45 / 16:30-19:30
Elgoibar-Mendaro-Soraluze: 09:00-13:00 / 16:00-20:00
Ermua-Mallabia: 09:00-13:30 / 16:30-20:00
Mutriku: 09:00-13:30 / 16:45-20:00
Itziarko botikina: 09:00-12:30

GUARDIA ORDUTEGIAK

Egunez: 09:00-22:00
Gauetz: 22:00-09:00
 Eibarren urte guztian, egunerero: Elortza (Juan Gisasola, 18-Eibar. 943 206 100)
Larunbatak:
 Elgoibar-Mendaro-Soraluze: 09:00-14:00
 Deba-Mutriku: 09:30-13:00
 Ermua-Mallabia: 09:00-13:30
Igandeak eta jaiegunak: Deba-Mutriku: 11:00-13:00

FARMAZIAK

DEBA A. ZALDUEGI: Lersundi, 20 - 669 26 22 01
DEBA H. BURGEO: Astillero, 2 - 667 33 88 90
ELGOIBAR ARRIOLA: Santa Ana, 1 - 943 74 01 40
ELGOIBAR BARRENETXEA: Errosario, 26 - 943 74 12 77
ELGOIBAR GARITAONANDIA: Uparitzaga, 5 - 943 74 11 77
ELGOIBAR YUDEGO: San Frantzisko, 18 - 943 74 12 93
ERMUA A.M. BAZ: Zearkale 2 - 943 03 17 03
ERMUA M. ALVES: Gipuzkoa etorbidea, 46 - 943 17 26 66
ERMUA A. ALCALA: Zubiaurre, 29 - 943 17 17 54
ERMUA I. LECUMBERRI: Zubiaurre, 9 - 943 17 00 97
ERMUA M.I. UGARTE: Goienkale, 11 - 943 17 05 26
MALLABIA E. ARRONATEGI: Mallazpi z/g - 943 17 24 14
MENDARO FERNANDEZ: Herriko Enparantza, 4 Garagartza - 943 75 61 42
MUTRIKU LASUEN-ELEZGARAY: Txurruka Tenienteak, 3 - 626 61 13 92
MUTRIKU L. APRAIZ: Erdiko kalea, 5 - 630 05 50 97
SORALUZE SOTO: Rekalde, 1 - 943 75 16 38
SORALUZE ORUESAGASTI: Kalebarren, 9 - 943 75 13 84

ZINEMA

ELGOIBAR

HERRIKO ANTZOKIA
'Todo lo que fuimos'
 Larunbata, 16: 19:00, 22:15
 Igandea, 17: 19:00
 Astelehena, 18: 21:00
'Dos fiscales'
 (Ongarri zinekluba)
 Asteazkena, 20: 21:00
'Kraken, el libro negro de las horas'
 Ostirala, 16: 19:00

ERMUA

ERMUA ANTZOKIA
'Prime Crime'
 Larunbata, 16: 19:30
 Astelehena, 18: 20:30
'Boulevard'
 Larunbata, 16: 22:00
 Igandea, 17: 19:30
'Maracuda'
 Igandea, 17: 17:00
'La isla de Amrun'
 (Zinekluba-Jatorrizko bertsoan)
 Osteguna, 21: 20:30

DEBA

KULTUR ELKARTEA
'La primera escuela'
 Igandea, 17: 19:00

EIBAR

COLISEO ANTZOKIA
'El beso de la mujer araña'
 Larunbata, 16: 17:00, 19:30, 22:30
 Igandea, 17: 17:00, 20:00
 Astelehena, 18: 20:30
'Couture (Alta costura)'
 Larunbata, 16: 17:00, 19:45, 22:30
 Igandea, 17: 20:00
 Astelehena, 18: 19:30
'Kill Bill, The whole bloody affair' (Jatorrizko bertsoan)
 Larunbata, 16: 19:30
 Igandea, 17: 20:00
 Astelehena, 18: 19:30
'Los legendarios'
 Larunbata, 16: 17:00
 Igandea, 17: 20:00
'Lucia di Lammermoor'
 Ostirala, 15: 19:30

AZKEN BERBA

Nongoa naizen



TXABI ARNAL GIL
IDAZLEA

Nongoa naizen galdetu zidan. "Ermutarra", erantzun nion. "Herri zatarrak", iritzi zion, errima erraz bat erabiliz. Eta berotu egin ninduen. Nik, garrantzirik gabeko eztabaida batengatik haserretzekoa ez naizena, nire aurpegiarik serioena jantzi nuen eta galdetu nion: "Zein irizpideren arabera sailkatzen duzu herri bat eder edo itsusi gisa?" Eta, orduan, historia bererikoa armarridun jauregiez mintzatu zen, etxeen dotorezia, kaleen trazadura garbi, ordenatu eta erregularraz, berdeguneen ugaritasunaz... Ez nuen gehiago entzun nahi izan. Bere hitzaldia eten eta neureari ekin nion.

"Herri polita, aberatsen herria?"

Lehenik eta behin, bere azalpena laburbildu eta zalantzan jarri nuen: "Herri polita, aberatsen herria?" Eta jarraian, zerua ukitu nahi duten aldapan edertasuna defendatu nuen, tren-geltoki bihurtu gabe, kale desordenatuena, *sky-line* ezinezkoena, ezagutzen den frontoirik herrikoia eta, batez ere, langile-arkitektura kaotikoarena. Horien guztien edertasunak defendatu nituen.

BUKATZEKO

Natura, eskola bizia

Anfibioentzako hezegune bat sortzeko dei egin dute Elgoibarren maiatzaren 17rako, eta intsektuentzako hotelak sortu dituzte ikasleek Mendaron

Ainara Argoitia ELGOIBAR

Naturak sormena eta kuriositatea garatzen laguntzen dio haurrari, eta naturarekiko konexioa funtsezkoa du haurrak-gizakia, oro har-oreka emozional eta psikologikoa mantentzeko. Hala dio baso-ekolen sustatzailetzat hartu izan den Philip Bruchner hezitzaile alemaniarra, baina, zoritxarrez, gero eta urrunago eta deskonektatuago bizi da naturatik gure gaurko gizartea. Eta hori iraultzeko, hainbat ekimen sortu dira azken urteotan gure inguru gertuan. Elgoibarren, esaterako, *Gure natura egitasmoa* sortu zuten Baso Biziak elkarteak, Morkaiko Mendizaleen Elkarteak eta Elgoibarreko Izarraren Atxutxiamaiak Sailak, herriko bertako nahiz inguruko natura ezagutzera emateko, ezagutzen ez dena nekez delako baloratu eta zaindu. Helburu horrekin, hamaika egitasmo egin dituzte azken lau urteotan, auzolanean. Hori ere bereizgarri duelako proiektu horrek.

Azkena, anfibioentzako hezegune bat sortzeko deialdia egin dute maiatzaren 17rako. Ez dute kontu berria. Izan ere, 2019an, antzeko urmael bat sortu zuten Sargateko iturri ondoan, Aranzadi Zientzia Elkarteko laguntzarekin. Ander Izagirre biologo elgoibartarra izan zuten orduko hartan gidari, eta, hezegunea sortu ez eze, anfibioentzako gordelekuak ere jarri zituzten inguruan. Putzu hartan ugaltzen dira



Sargateko iturri zuten putzuaren artiboko argazki bat. GURE NATURA EZAGUTZEN



Mendaroko ikasleak, euren sortutako intsektuentzako hotelaren ondoan. IKASTOLA

orain baso-igel gorriak, uhandre palmatuak eta txantxiku arruntak, esaterako, baina uretako beste ornogabe batzuentzako ere habitat aproposa da Sargatekoa. Orain, Sargateko egindako hori errepikatu nahi dute Lizagar sagardotegiaren lurretan, eta deitu dituzte naturzale guztiak auzolanera. 09:30ean Erretsundin elkarteko proposamena egin diete, handik oinez egiteko asmoa baitute Lizagarrerainoko bidea.

Edonola ere, oinez baino autoz joatea nahiago duenarentzat ordua ere zehaztu dute: 10:00etan, Lizagarreren bertan.

Lizagar sagardotegiaren lurretan sortuko dute Elgoibarren hezegunea

Liztor beltzarentzako tranpak eta intsektuentzako hotelak

Ikastetxeetan ere ari dira antzeko lanetan, *Agenda 20-30* egitasmoaren barruan. Ezaguna da, esaterako, *Vespa velutina* izeneko proiektua, zeinean eskualdeko ikastetxe asko ari diren parte hartzen. Erle europarrari atera zaion azken etsaia da *Vespa velutina* edo liztor asiarrak -liztor beltza ere deitu izan zaio-, espezie inbaditzailea, gure erlezainen eta ekosistemen amesgaizto bihurtu dena, eta haren izeneko proiektura batu diren ikastetxeetan tranpak sortu dituzte ikasleek, hura harrapatzeko, bestelako intsektuei kalterik eragin gabe. Hala egin dute, esaterako, Mendaroko eskola-umeek. Laz batu ziren proiektura, eta dozena erdi bat lekutan jarrita daude herrian haiek sortutako tranpak. Plastikozko botilak dira tranpak, eta azukrearekin, legamia naturalarekin eta urarekin egindako nahasketan katigatuta gelditu ohi dira liztor asiarrak.

Orain, berriz, eta proiektu horren jarraipen gisa, intsektuentzako hotelak sortu dituzte. Lehen Hezkuntzako haurrek parte hartu dute proiektuan, eta Joxe Eizagirre Mendaroko brigadako langilearen laguntza ere izan dute nagusienek hotelak sortzen. Herriko bost guneetan jarri dituzte gordelekuak, tranpak jarri zituzten lekuetatik gertu denak ere, eta astero irteten dira eskolatik umeak haiek ikustera, naturan beste ikasteko eskolarik ez baita haintzat. Proiektuak, hala ere, helduen arreta ere erakarri du, umeena ez eze. Izan ere, asko dira egunotan haurrek sortu dituzten hoteletan aterpea hartu duten bisitarien beha hurre-ratu diren begiluzeak



Barrena
BATZEN GAITUENA

egunean behin

TOKIKOM LIGA

Taldeko kideen artean **zozketa bat astero**
Sari berezia denboraldiko onenarentzat

Batu zaituz Tokikom Ligako Barrena taldera!

